


# ARRASATE



MARANON GESALAGA EDURNE  
LORAMENDI KALEA, 06-10. C  
ARRASATE

# PRESS

Arrasate 1989ko Azaroak 17 41. zenbakia

2

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**S. Andres**  
*geroari begira*



**HOTZ - BERO**

**zibro**  
**KAMIN TURBO**

Kanpantorpea, 2

Tfnoa: 79 70 98

79 67 54

ARRASATE

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea .....	795300
Igualatorioa .....	790500
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	793900
(emakumeak) .....	794411
Buru osasunerako zentrua .....	799011

### Gurutze gorria:

Bergara .....	765576
---------------	--------

### DYA

Antzuola .....	766291
----------------	--------

### Anbulatorioak

Arrasate .....	791357
.....	799722
Oñati .....	780852
Eskoriatza .....	798896
Aretxabaleta .....	797458
Aramaio .....	(945) 455116

### Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulanziazak .....	458744
--------------------------------	--------

### Udaltzaingoa:

Oñati .....	780411
Bergara .....	761469
Arrasate .....	791439
Aretxabaleta .....	791052
Eskoriatza .....	790322

### Ertzantza:

Arrasate .....	797199
----------------	--------

### Suhiltzaileak:

Udal taldea .....	790900
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	782800

### Matxurak:

Urak (udal zerbitzua) .....	790900
Elektrizitatea (Iberduero) .....	790581
Gasa .....	900 400 523
.....	79 78 44
.....	79 76 78

### Garraloak:

Taxiak .....	791222
P.E.S.A. ....	791419

### Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza .....	797211
Abaroa jubilatuen egoitza .....	798157

### Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....	798777
----------------------------------------------------------------	--------

## 17 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Grita libertad" Novedades: "La mosca II". 10,30etan.
- Bideo emanaldia: Gaia: "Afrika-ko herriak". 7etan Monterronen.
- Goardiako farmazia: A. Azkoaga. Ferrerías

## 18 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Grita libertad" Novedades: "El baile del pato". 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Goardiako farmazia: S. Español. Iturriotz.

## 19 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Super detective en Hollywood II" Novedades: "La mosca II". 5,7,30, 10,15etan.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera. Musakola

## 20 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Super detective en Hollywood II" Novedades: "La mosca II". 7,30etan.
- Goardiako farmazia: J. A. Irizar. Erguin.

## 21 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Super detective en Hollywood II"
- Hitzaldia: Lurdes Goenagak. Gaia: "Elikagai bateraezinak". 3etan AED elkartearen lokaletan.
- Hitzaldia: Orkatz Skaut taldea.
- Goardiako farmazia: L. Amezua. Santa Marina.

## 22 ASTEAZKENA

- Zinea: Alai: ez dago sesiorik.
- Hitzaldia: Ikarus taldea eta Iru-netik etorritako batek. Gaia: Delta hegoa.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz. Magdalena.

## 23 OSTEGUNA

- Zinea: Alai: "Batman"
- Hitzaldia: Pello Zabalak. Gaia: "Eguraldiaren aldaketak azken aldi honetan" 7etan Monterron hitzaldi aretoan.
- Zine-klub: "Lunes tormentoso". Amaia antzokian 8,30etan.
- Arrasate eta Gasteizko tunak. Herriko kaleetan zehar, arratsaldeko 7etatik 9etara.
- Goardiako farmazia: A. M. Morales. San Andres.

## IRTEERAK

Donostiara Larunbatean Autobiaren Aurkako Koordinakundeak antolatuta Donostian egingo den manifestaziora joateko autobusa antolatu du Eguzkik. Izen ematea Biona edota Irati tabernatan.

## IKASTAROAK

"DBase III-rekin programaketa" Arrasateko IMI zentruan. Izen emateak IMI zentroan. Azaroaren 27tik abenduaren 1a bitartean.

Informatika ikastaroa, Oñatiko Udalak Eusko Jaurlaritzarekin batera antolatutakoa. Azaroaren 27tik aurrera, 160 ordukoa. Astelehenetik ostiralera 6,30etatik 8,30etara.

## IHARDUNALDIAK

Kontsumoari buruzko ihardunaldiak. Azaroaren 20tik 24era.

# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

## Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Arrasate pasealekua, 3-Bis, behea.  
20500-ARRASATE -TF.79 71 64

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala

**Zuzendaria:** Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:** Jon Andueza  
Bego Zubia

**Publizitatea:** Josune

**Maketazioa:** Goio Arana

**Erredakzio-kontseilua:** Jose Felix  
Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki  
Mendiguren

**Kolaboratzaileak:** Josemari Velez de  
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele  
Zuazubiskar, Patxi Montero,  
Juan Martin Elexpuru, Mikel  
Arregi, Eukeni Olabarieta, Arantxa  
Lizaso, Gerardo Markuleta,  
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,  
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila  
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion  
Taldea, Joseba Vallés, Karmelo  
Uribarren, Iñaki Aranburu,  
Hankamotzak.

**Inprimategia:** Gertu Koop. E.

**Banaketa arduraduna:**

J. L. Arejolaleiba

**Harpidetzak:** Arrasate pasealekua 3  
Bis, behea. 79 71 64

**Copyright:** ARRASATE PRESS

**Tirada:** 5.500 ale

**Lege-Gordailua:** 1124/88

**ISSN:** 0214-4654

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain  
hartzen aldizkarian adierazitako esanen  
eta eritzien erantzunkizunik.



## Izokinetan

Leihotik ari naiz begira. Bertako zero garbiak elurrari eman dio bide mila metrotatik gorako gailurretan. Egunak urratu berri ditu bere nagiak eta, dagoeneko, Ramon atean joka ari zait, nire iratzargailua bailitzan. Denbora luzea daroat esnatuta, egunak zer eskainiko ote hausnartzen. Urtean hiruzpalau bider bizi ditudan prolegomenoetan aurkitzen naiz: izokinatarako gertutzen ari.

Ostatuko atletik Cares ibaia daku-sat, bere haunditasunean, oraindik bere uretan erret-arraina gordetzen duten bakarrenetakoa. Ur gardenetan -arrantzaleok ur garbiak maite ditugu- bizi da honaino ekarterazi nauena, gizakiok ingurugiroa hondatzen ari garen heinean gero eta murriztago bihurtzen ari zaigun espeziea. Izokinaren erakarpenak dantzan ipintzen gaitu zaleok.

Kainaberak luzatu ditut, esperantzan. Eguraldi hobetzeri ei doa, ibaia uberkatzen duten harrizko horma erraldoietako goikaldetik zenbait ostarte ageri baitira. Arrantzalekura iritsi gara; Ramon dut lagun. Ibaiaren sekretuak hobekien ezagutzen dituzten erdi profesional erdi tranpalari horietakoa da Ramon "El gancheru". Izokinaren erreakzioen ezagupidetzak Ramonen jakintzaren zati luzea betetzen du, bere ikasgaiak, eguneko, lau mila pezetatan saltzen dituelarik.

Ibai bazterretako eukalipto, hal-tza, gartzainondo, mimosek izadiaren

indar lehorkorraz berjabetzen naute, gure buru gaineko espazio amaigabea saiek zirkulu ikustezinak marrazten dituzten bitartean. Zarata bakar batek, urarena, bertara zertara etorri garen gogorazten digu. Saiatu egiten gara, beraz, ibaitik gora amu beiratuak ur jariorik bizienetara jaurtikiz, harkaitz ondoan kokaturik dagokeen izokina erakartzeko asmoz.

Ogitartekoari eskainitako aukurako geldiunean Ramonek gaur gureak ditugun osinetako historia txikia kontatzen dit, urte luzeetako esperientziak apainduriko maisutasunaz. Bere begi argietan iragan haintzatsua goa nabaritzen dudala irudituz zait.

Arratseko lehen itzalekin tolestu ditut kainaberak. Gorputza neke, baina gogo berrindartua irten naiz, beren zoragarritasunean hamar ordutan zehar babestu nauten bazterretatik.

Dutxa bizigarria hartuta gero, zenbait lagunekin afaltzen dut Nise-riaseko Julian jatetxean. Noski, egunak eskainitako gorabeherak ditugu solasgai, arrantzaleoi leporatzen zaizkigun gehiegikerietatik urrun geratzen garelarik; elkar ezagutzen dugu eta.

A! Eta ez dizuet esango izokinik harrapatu ote dudana ala ez. Ez zen nire asmoa, gehien atsegin dudana zaletasuna kilotan nahiz piezatan ezagutaraztea.

*Josemari Velez de Mendizabal*

**UGARAN**  
jatetxea

Garagaritza auzoa - t/797658 Arrasate

enpresa  
bazkariak  
eta famili bilerak



**gili gili**  
Iturriotz, 9 Tfnoa:799457

**GIROA  
AROTZAK**  
Iturrioz 14, ARRASATE

**HIRE**  
Liburu eta oparidenda  
Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**Maiatz**  
ILEAPAINDEGIA  
mixtoa  
Elkano 38, (Musakola)  
Tfnoa: 79 58 78  
ARRASATE



**BELUN  
TABERNA**  
Lagunarte bikaina  
Garagartza Auzoa,z/g Tfnoa:796114

**KAJOI TABERNA**  
erdiko kale 22  
Tfnoa: 79 32 27

**Diputazioko suhiltzaileak  
borrokan lan-egoera eta  
zerbitzua hobetzeko**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Langileen Komiteak, Sekzio Sindikalek eta suhiltzaileen ordezkariak Irungo eta Oñatiko parkeetan lan-egoerak izan duen gainbehera salatu nahi dugu.

Joan den urrian suhiltzaileen lan-egoerari buruzko negoziaketari ekin zitzaion, eta langileok bi arazo nagusi jarri genituen eztabaidan:

—Suhiltzaileen lanpostu gehiago egotea, gaur egun diren suhiltzaileak oso gutxi bait dira behar den bezalako zerbitzua emateko.

—Lan-txanda hobeki erregulatzeari, suhiltzaileak ez bait du zertan egun santu guztia lanaren mende egon behar.

Diputazioaren jarrera gogor eta tinkoa izan da hasieratik, eta ez ditu eskabide hauek sakonean aztertu nahi izan. Areago, oraingoa baino lan-txanda okerragoa ere jarri nahi du.

Kontua oso larria da, Diputazioak bai bait daki alde aurretik suhiltzaileak joan egingo direla sutara gauzak larritzen direnean, horretarako bait dira profesionalak.

Herriak, ordea, jakin beharra dauka gaurko plantilak ez duela gutxienezko batzbestekoa ere betetzen, eta horrela herritarren nahiz suhiltzaileen segurtasuna arriskuan dagoela.

Negoziaketa honetan langileen ordezkari garenok gogor salatu behar dugu Diputazioaren jarrera, jorkabide horrek suhiltzaileen artean sortzen duen ezinegonak eragin gaiztoa bait dauka gero zerbitzuan, lehenagotik suhiltzaile gutxiegi diren parkeetan.

Horregatik galdegiten diogu Diputazioari bere harrokeriak utzi eta langileen arazoizko eskabideak eztabadaitu ditzan.

*Gipuzkoako Foru Diputazioko Langileen Komiteak, Sekzio Sindikalak eta Oñati eta Irungo suhiltzaileen ordezkariak*

**Seaskak laguntza behar du**

Ezaguna da Iparraldeko Ikastolek (*Seaska*) betidanik izan dituzten trabak eta arazoak beren iharduera aurrera eramateko, bere egoera ekonomikoa gero eta larriagoa delarik.

Egoera hau aldatzeko, *Seaska*-koek, beste ekintza batzuren artean, (frantsez administrazioari presionatu bere eskubideak errespetatzeko, etab.) gugana jotzen dute, urtero, ezagunak diren egutegi salmentaren bidez ekonomikoki laguntzeko.

1990eko egutegiak salgai daude honez gero Arrasateko ikastolan, euskaltegietan, AED elkarteetan, batzokian, Irati taberna eta Hire liburudendan.

Anima zaitetz zeu ere eta eros itzazu egutegiak, Seaskak denon laguntza behar du eta.


AED

**5.500 ale**

Lehen urtea laster beteko dugun honetan 5.500 ale inprimatu eta zabaltzera heldu gara. Zuri esker, Irakurle.  
Zure ondoan astero segitzeko asmoz, mila esker.

ARRASATE  
PRESS

# Nola tratatzen ditu atzeratuak gure gizarteak?



**Jesus Mª Guerra**  
(jubilatua)

Ez dakit, ez dut uste ondo daudenik baina txarto ere ez. Edozelan ere, ez dut uste beren egoera hobetzeko ezer egingo denik.



**Soledad Bolinaga**  
(jubilatua)

Batzuk beste batzuk baino hobeto. Dena dela, arazo hori ongien be-  
raiekin bizi direnek ezagutzen  
dutela uste dut.



**Monserrat**  
(etxeakoandrea)

Ez dut arazoa zuzenean ezagutzen,  
ondo tratatzen dituztela uste dut,  
edo behintzat ondo tratatu beharko  
genituzke.



**Manu Aranburu**  
(langilea)


Lehen baino hobeto, bain ondion  
hutsune ugari dago eta egiteke  
dagoen bidea oso latza da.

**L E N I Z**

**AUTO ESKOLA**

ARRASATE-Aldai, 9-Tlf. 79.46.04

ESKORIATZA-Arana, 13-Tlf. 79.36.59



**itesa**

- \* Pisu eta lokalak
- \* Orube eta lursailak
- \* Balorapenak

*Gure aholkularitza,  
gestio eta  
salmenta-zerbitzuak  
eskaintzen  
dizkizugu*

Maalako errebala, 6. 1

*Jesus Giraldo*

**LISERI-APARATUA**

X Izpiak, endoskopia

(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Prevlasa, Adeslas  
(Muface) eta partikularrak  
Kontsultak arratsaldeetan

Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tfnoa: 79 04 14 Arrasate

**Memesa**

**79 42 22**

“Baina, baina..., bai desastrea dela herri hau! Lehen arazo galanta baldin bageneukan Mondragoeko trafikoa-  
rekin, orain gauzak gaiztotu baino ez dira egingo Maxi  
Eroski eta Musakolako industrialde berriarekin. Gauza  
berriak egin aurretik inork ez du pentsatzen, ala?”

*(PESako txofer baten iruzkina)*

“Komunitate Foralean erabaki genuen HBrekin deba-  
teetan parte ez hartzea baina bakarrik hauteskunde denbo-  
rarako. Orain zabalduko balitz beste dei bat ikusiko genu-  
ke nola jokatu.(...)Neurri honen helburua HB parlamen-  
tura joatea da. Ez dago HBren kontrako beste neurrik.  
ETAren aurka bai, eta nik bereiztuko egingo nituzke  
biak”.

*(Koldo Martinez, EEko militanteak Argia al-  
dizkarian)*


“Eskualdeak dituen 35.000 biztanletatik, 9.000  
kooperatibistak dira eta hiru eskualdetatik batek  
Taldearekin zerikusi duela ziurtatzen da, langile  
kooperatibista, Lankide Aurrezkiko aurreratzailerak, 44  
hezkuntz establezimenduko ikasle edo Eroskiko bezero  
moduan”

*(Geo aldizkarian)*

“Fagor Arrasatek, bere produkzioaren %40a  
esportaziorako izanik, mundu osoan dagoela dio;  
Europako bezero nagusia Alemania da eta, tradizioz,  
munduan Mexiko. Batzuentzat paradoxikoa gerta  
daiteke, baina han (Mexikon) Europako nazio askotan  
baino askoz ere elektratresna gehiago egiten da”.

*(Gloria Abanda Zendoia, DV egunkariko kaze-  
taria.)*

**Zer dela eta sortu dira  
Gipuzkoan tifus kasuak?  
Etor dakiguke bailarara  
gaisotasun hori?**



Beno, lehenik eta behin argitu beharra dago ez dire-  
la prentsan argitaratu den  
zenbait albistetan esaten  
den bezala lau kasu suerta-  
tu, askoz gehiago izan dire-  
la. Edozein modutan, urtero suertatzen dira horiek  
baino askoz ere tifus kasu gehiago. Estatistiketan  
oinarrituz, 1985ean Gipuzkoan 38 kasu izan  
genituen, 86an hogeitamazazpi, 87an hogeitazortzi,  
88an hamazazpi eta aurten dagoneko hoge-  
temeretzi izan dira. Egia da aurten gorakada eman  
dela, baina ezin esan daiteke gorakada nabaria izan  
denik eta horren arrazoiak ere ezin argi daitezke.  
Baliteke sikuteak eraginik izatea honetan, euri  
gutxi egitean, urtegiak hornitzen dituzten erreka  
kutsatzeko arriskua gehitu egiten bait da. Edozelan  
ere, ezin dugu ziurtatu horrek eragin duenik tifus  
kasuen ugaltzean. Tifus gaisotasuna uraren bidez  
heda daiteke baina ukitzearen bidez ere bai.

Bestalde, Arrasate eta, oro har, Leintz bailarako  
urak oso kalitate onekoak dira. Urkuluko urtegiak  
oso kalitate oneko uraz hornitzen gaitu. Aurtengo  
sikutea orain dela lau edo bost urte suertatu izan  
balitz, hemen gauza larriren bat gerta zitekeen.  
Aurten ez dugu tifus kasu bat bera ere izan eta ez  
dut uste izango dugunik.

*Genaro Gartzia  
Sendagilea*

## Gorosti jatetxea

OTURUNTZAK  
AGURRAK  
NEGOZIOTARAKO OTORDUAK

**IREKI BERRIA**

Arima zuri 2, Tfnoa: 79 20 02 ARRASATE




Otalora 2, ARRASATE



Fotokopiak  
Enkuademazioak  
Planoen erreproduzioak  
Offseto  
Ferrerías 23,  
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

# GURE ero NAI BOZU




*Euskeraz  
Leiruten  
eta  
eskribituten  
ikasteko*

*Euskeraz  
Leitzen  
eta  
eskribitzen  
ikasteko*

KANPAINA 89-90




ARETXABALETA, ARRASATE, BERGARA eta ESKORIATZAKO UDALAK  
ARETXABALETA-ESKORIATZA, ARRASATE eta BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIAK



*euskaraz irakurtzen  
eta idazten ikasteko*

## GURE EDO NAI BOZU



Ikastaro hasiera: Nobienbrearen 27an  
Ikastaroaren bukaera: Apirilaren 11an  
Klase egunak: Astelenerik eguenera  
Erritmoa: Egunean 2 ordu  
Matrikulaldia: Azaroaren 13tik 17re  
Non;  
Bergarako Udal Euskaltegia Tfnoa: 76 44 53  
Arrasateko Udal Euskaltegia Tfnoa: 79 70 77  
Aretzabaleta Eskoriatzako Udal Euskaltegia Tfnoa: 79 21 68  
Matrikula: 7.000 Pta.  
Bekak: Galdetu Euskaltegia

### PROMOCIONES MARKULETE, S. A.

## NABE INDUSTRIALEN SALMENTA

### Mendi-Etxebarrin

**445 m<sup>2</sup> tik aurrera sarbide zabalarekin**

- \*Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.
- \*Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia
- \*Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95



## prentsaren begia

### OSTIRALA 10

**CORREO:** "Arrasate Telebistak gurago du oraingoz bere emisioak hasteko epea ez ezarri"

**DEIA:** "Udala %80an informatizatu"

**DV:** "Udalak lehen urratsa eman San Cristobalen kanposantu berria egiteko"

**EGIN:** "Eroski berriak lauhun milioiko inbertsioa suposatu du"

### LARUNBATA 11

**CORREO:** "Arrasateko San Andres auzoan bizi diren 900en bat familia satelite bidezko telebista sarean loturik"

**DEIA:** "Kontsumo-tailerrak, Monterron Kultur Etxean"

**DV:** "San Andresko 876 etxebizitza satelite bidezko telebista sarean loturik"

**EGIN:** "Ikasleek atzo borroka-eguna egin"

### IGANDEA 12

**CORREO:** "Arrasaten 500etik gorako eskariak aurkeztu Altamirako promozio publikoko 41 pisuetarako"

**DEIA:** "Arrasate, abenduan Gipuzkoako X. akordeoi txapelketaren egoitza"

**DV:** "Arrasateko gazteen gehiengo soldadutzaren aurka"

**EGIN:** "800 familia baino gehiago San Andresko TVS sarean"

### ASTEARTEA 14

**CORREO:** "Arrasateko 1990ko Udal aurrekontuaren lehentasunak dagoeneko konprometituta"

**DEIA:** "900 familiak satelite bidezko telebista ikusi"

**DV:** "Mondrak ezin gairitu Atxabalpen duen zoritxarra"

**EGIN:** "Erakusketa, bideo-emanaldi eta hitzaldiak Afrikari buruzko astean"

### ASTEAZKENA 15

**CORREO:** "Arrasatek epe laburrean Gipuzkoako Andaluziar lehen kultur zentrua izan lezake"

**DEIA:** "Kontsumitzaile gazteentzako jardunaldi batzuk planteatu"

**DV:** "Taberna bat aldi baterako itxi intsonorizazioaren udal araudia ez betetzearen"

**EGIN:** "Iharduera pila bat 'Gazte Jardunaldietan'"

### OSTEGUNA 16

**CORREO:** "Arrasatek hirugarren adinekoentzako iharduera programa finkoa izango"

**DEIA:** "'The last movie', zine-emanaldia gaur arratsalderako"

**DV:** "Bost auzotarren kooperatibak gas naturalaren gaia dela eta, errekurtoa tartearri"

**EGIN:** "Gazteek euren bizimoduarekin lotutako zerbitzuak eskatzen"

## Usteak uste...


Joan den asteburua dantesko samarra izan zen garraio pribatu zein publikoa sarri erabili behar izaten ditugunontzat. Zentro Asistentzialetik Axerikuaraino doan bidea itxita egon zen zenbait egunez, trafiko guztia Garibai eta Gipuzkoa etorbideetan barrena joatera behartuz.

Horrek besterik barik gauzak dexente nahastu zituen, baina ostegunean Maxi Eroskiren inaugurazioa etorri zen eta zer izan zen hura! Akabua. Autopilaketak Aretxabaletaraino iritsi ziren

Jo dezagun irekitze eguna zenez, horrelakoetan sortzen den morboak eragin zuela deskalabroa. Konforme. Baina gauzak daudenean utziz gero, garbi asko aurrikus daiteke Maxi Eroskik eragingo duen auto mugimenduak gaiztotu egingo duela gure inguruko trafikoa. Eta horri eransten badiogu Musakolako industrialde berrian lanean hasten direnean emango den garraio hazkundera, ba, bat gatoz Pesako txofer harekin. Hau desastrea izan daiteke bi gune garrantzitsu hauek eragindako trafiko arazoak konpontzeko neurri azkarrak hartzen ez badira.

Diru pribatuaz egin diren obrak (Maxi Eroski eta Industrialdea) aurrez markatutako epeetan etorri zaizkigu. Diru publikoz aspaldi bukatuta egon behar zirenak (sahiesbidea kasu) azken epeak bete ezinik dabilta. Gure artean zoritxarrez askotan ematen den fenomeno.

Joxe Aranzabal



# ARRASATE KIROLAK

KIROLAREN ETORKIZUNA ESKU ONETAN DAGO!!!

Kritzealfo kalea 8, Tfnoa: 79 46 12 ARRASATE

## Etnografia erakusketa Bergaran

Errotalde kultur etxean, azaroaren 7tik 26ra, Euskal Etnografia erakusketa izango dugu ikusgai. Erakusketa hau Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo sailak eta Lan-kide Aurrezkiak antolatutako "Kultur bideetan" kanpainaren barne dago. Herri askotan erakutsi da honez gero, tartean Aretxabaletan eta Arrasaten ere.

Bertan aurkitu daitezkeen bitxikerien artean, honako hauek aipatu behar: Urte eta mendeetan zehar euskaldunek erabili izandako jantziak, altzariak, tresnak, etab.

Aukera paregabea dugu, beraz, galtzear dugun mundu hori gertutik ezagutzeko. Lanegunetan arratsaldeko 6etatik 9,30etara zabalik, eta



asteburuetan goiz (12,30etatik 2etara) eta arratsaldez (6,30etatik 9etara).

M. E.

### ■ "Lunes tormentoso"

Azaroaren 16an izango dugu Mike Figgisek zuzendutako pelikula hau ikusteko aukera, Amaia antzokian, arratsaldeko 8. 30etan.

Beste antzezle batzuren artean, honako hauek aurkituko ditugu: Melanie Griffith, Tommy Lee Jones, Sting eta Sean Bean.

Filmean kontatzen diren gertakizunak Newcastleko kokatzen dira. Cosmo (Tommy Lee Jones) amerikar negozio-gizona da, eta kai inguruko distritu guztia erosi nahi du bere kontura bertan etxeak eraikitzeko. Newcastleko Udala ere bere alde dago; baina badago saldu nahi ez duen norbait, "Key Club"eko zuzendaria den Finney (Sting). Gauzak horrela, Cosmok bi matoi ekarriko ditu Londonetik Finney ikaratzeko edo; baina honek garbi erakutsiko du etxea defendatu nahi duela.



### Sukaldaritza AEDn

Bukatu berria den ohizko sukaldaritza ikastaroaren arrakasta ikusita, AEDk hiru hitzaldi antolatu ditu. Gaia "Elkagai bateraezinak" izango da, eta hitzaldiak Lurdes Goenaga mediku higienistaren kontu. Pasa den asteartean eman zuen lehenengoa, eta hurrengoak 21ean eta 28an izango dira, AEDren egoitzan, arratsaldeko 3etan. Hitzaldi zikloa amaitzen denean, bi saio praktiko emango dituzte.

## Txibisto

Hilak 18, larunbata  
*auto* baten zozketa



## OMU mosaikoak

Zeramika-erakusketa: Otalora 1ean  
Biltegi berria: Meatz-Erreka

ARRASATE

## TXITXINPE

### BEREZITASUNAK

Kafea, ardoak, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua 33,  
Tfnua: 79 67 76 ARRASATE

## ARRASATE PRESS

79 71 64



## UCEMeko ekonomatoa ixteko zorian?

**A**zken bolada honetan al-daketa ugari ematen ari da Ucem enpresan. Lehen urratsek adierazten dutenez, asmoa enpresa sail ezberdinetan banatzea litzateke. Gauzak horrela, sail horiek "Saltos de Olate", "Transformados metálicos" eta UCEM S.A. izango dira.

Dena den, aldaketak beste arlo batzuetara ere zabaldu dituzte; eta erabaki aipagarrienetarikoa ekono-

matoaren etorkizunari dagokio.

Badirudi enpresaren zuzendari-tzak orain hilabete batzuk jorratu zuela gai hau. Lehenengo eta behin, jubilatuei buruzko erabakia hartu zuten, eta orain gutxi heldu zaie oharra etxera, urtariletik aurrera Bergarako ekonomatoan erosi beharko dutela jakinarazten zaielarik.

Baina hori ez da dena. Badirudi enpresaren asmoa ekonomatoa ixtea dela. Aspaldi honetan Eroskire-

kin harremanetan ibili dira UCEMekoak, langileek orain arte ekonomatoan egiten zituzten erosketak, tratu berezi baten bidez Eroskin egin ditzaten.

ELA eta CCOO sindikatuen ustez, badago hainbat hutsune egitasmo berrian; besteak beste, beraien ustez sakabanaketari ekidin beharko litzaioke, jubilatua ere Eroskirekin sinatuko den akordioan sartu beharko liratekeelarik. Ikusi egin behar!

**LORAMENDI**



**KIROLAK**

Anorakak  
Lumatxak  
Sky  
equipamenduak  
**AUKERARIK  
ZABALENA**  
Eskatu katalogoa




**beatriz**  
oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale, 11 Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

**EPELDE**

argazki denda

Iturriotz 24



## Satelite telebista zabaltzen

### S. Andreseko 876 familia STB sare barruan

Orain urtebete sortu zen "Satelite telebista elkarte". Helburua, San Andres auzoan telebista eskaintza hobetzea bi antena parabolikoren bidez. Duela egun batzuk, elkarteak lehenengo batzar orokorra egin zuen, egitasmoaren gaur egungo egoera azaltzeko.

Horrela, bertan aditzera eman zuten 876 familiak hartzen dute parte proiektuan, eta 430 gelditu dira kanpo. Halere, azken hauek oraindik ere denbora dute izen emateko, orain uko eginez gero, gero garestiago suertatuko bait zaie sartzea; beraz, erabakia ondo pentsatu behar.

Antena parabolikoei esker, hamabi telebista kate ezberdin ikustea lortuko dute proiektuaren barne dauden guztiek: TVEko biak, ETBko biak, frantsez kate bat, beste italiar bat, amerikar bat eta lau kate ingelesak, hain zuzen ere.

Satelite telebistaren sarearen barne egotea 18.000 pta. kostatzen zaio familia bakoitzari. Oraindik amaitu gabe daude obrak San Josepe, General Garro eta Arrasate pasealekuan. Etorkizunean, Arima-zuri eta Izarra dorrean arituko dira, eta ez diote uko egiten Munar eta Uribarrin zabaltzeko ideari.

### ■ Eman zeurea

Kanpainaren bigarren fasearen ondoren, 89 gurasok izena eman dute eskoletan euskera klaseak hartzeko.

Atzo, osteguna, mailaketa erabakitzeko probak egin zituzten, 2,30etan Monterron kultur-etxeke hitzaldi aretoan eta 6,30etan Arimazurin dagoen Udal Euskaltegian.

Gogoratu zerbitzu hau Udal Euskaltegiak eskainiko duela, beraz, bestelako informaziorik gura izanez gero, deitu bertako 79 70 77 tfono.ra.

### ■ Okerrak zuzenduz

EAKoek adierazi digutenez, oker erabili genuen D'Hont legea azken hauteskundeetan emaitzetan. Datuak zuzen erabiliz gero, PSOE eta HBk seina zinegotzi hartuko lituzkete, EAJ eta EAK launa eta EEK bat. EEren bigarrena dantzan egongo litzateke EAren laugarrenarekin, boto gutxi batzuren gorabeheran.. Gaizki idatziak barkatu eta ondo esanak kontuan hartu. Mila esker.

### Jaiotzak

Jimenez Bastarrika *Aitor*  
Azaroaren 9an  
Rodriguez Pozo *Julen* 9an  
Lasaga Heriz *Aitzol* 11ean  
Nuñez Segovia *Urko* 13an

# AUSTIN ROVER




## AUTO SAN ANDRES



IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE



## “Leiruten eta eskribiruten ikesteko”

Hiru Udal eskaltegik antolatutako kanpaina

Deba Garaian, euskaltegiara hurbiltzen den euskaldun kopurua oso urria da. Halaber, eguneroko bizitzan euskara dakien biztanlego haundi horrek euskara ahal baino gutxiago erabiltzen du, bai ahoz eta baita idatziz ere.

Gauzak horrela, Bergara, Arrasate eta Aretxabaletako Euskalategi eta Udalek kanpaina bat bultzatu nahi dute. Helburua, egunero suerta daitezkeen hainbat funtzio ximple euskeraz txukun egin ahal izateko “entrenamendua” eskaintzea, bai min-

tzamen, bai ulermen eta bai irakurmen gaitasunak sendotzeko.

Kanpainaren egutegiari dagokionez, eskoletan lehenbailehen hastea komeni da ikastaroak behar besteko pisua izan dezan eta amaiera urteko lanaldi adierazgarri batekin suerta dadin. Aurrikuspena honako hau litzateke: azaroaren 13rako propaganda kalean, 13tik 17ra matrikula epea, 27an eskoletan hasi, eta apirilaren 11an eskoletan amaitu. Guztira 138 eskolordu astelehenetik ostegunerako erritmoan.

## Telefonika etxe aurrekaldeak txukuntzen

Honez gero hiru astebete badaramate Sintel (Telefonica-ren filiala) enpresako langileek erdialdeko etxeen aurrekaldeak zeharkatzen dituzten kableak kentzen eta lurrazpian sartzen. Honen ondorioz, alde zaharreko etxeak askoz ere txukunago geldituko dira, orain erakusten duten kable itsusi horiek barik.

Amaitu bitartean eta lan honen ondorioz, telefonoak nahiko zoraturata dabilta.



## BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

ARETXABALETA

## Gorka

ILEAPAINDEGI  
MIXTOA



Bainetxe kalea 10, behea. Tfnoak: 79 96 80 eta 79 63 27  
ARETXABALETA

A r r a s a t e  
u  
t ● klase  
o praktiko  
e eta  
s teorikoak  
k  
o  
l  
a  
Olarte, 30  
79 89 89



## Amaia zinema Udalarentzat

### Ferixaleku eta Elkanoako lurpeko aparkalekuen truke

Otsailean onartu bazen ere, joan den ostiralean sinatu ziren Mondragoeko notariaren aurrean Amaia zinemaren jabeagoa aldatzeko agiriak. Arrasateko Udalaren izenean Xabier Zubizarreta, alkatea eta Eibarko enpresaren izenean Jose Ignacio Egia.

Hitzarmen honen arabera, Udala izango da aurrerantzean Amaia zinemaren jabea. Horren truke, Amaia jabe ohiei baimena ematen zaie Ferixalekuan eta Musakolako Elkano kalean, Santa Teresa elizaren ondoan, lurrazpiko aparkalekuak egi-

teko eta ustiatzeko.

Oraindik Amaian zernolako obrak egin behar diren guztiz erabaki barik dagoen arren, ematen du Diputazioa prest egongo litzatekeela hainbat dirulaguntza emateko, eskenatokia berrizteko eta baita aire girotua eta berotze sistema aldatzeko ere. Lehen kasuan obren kostuen %70a eta bigarrenean %50a. Horren truke, Foru Aldundiak Amaia urtean bost edo hogeit egunez erabiltzeko eskubidea izango luke, hark antolatu edo babestutako ekitaldietarako.

## Ferialeko Ikastola

Hamabost gelatan banatuak dauden 310 neska-mutiko ari dira bertan, eta kurtso honen hasieran pilotaleku berriaren obrek sortutako arazoei aurre egin behar izan zieten.

Makina bat bilera izan dituzte Ikastolako zuzendariak Udalarekin eta obretan diharduen enpresarekin, haurrek benetan baldintza eskaxak dituztelako errekreoaneta gimnasia egiteko orduan. Asmoak, alde batetik geletara heltzen diren lan-zaratak ahalik eta gehien murriztea; bestetik, jolastokiaren arazoari irtenbide bat ematea.

Badirudi Ikastola barnean dagoen gela handia gimnasio multiuso bezala egokitzea izango litzatekeela konponbide egokiena.



**LASAGABASTER**

**Jantzidenda**

*Bertan izango duzu beti modako  
jantzirik onenen aukera zabalena*

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97

# Soldadutzaren aurrean zer egin?

## Gazteak aurka

Arrasateko 130 gazte zozketatu zituzten pasa den igandean, datorren urtean soldadutza non egin beharko duten jakiteko. Dena den, gazteek geroago eta argiago erakusten dute nahita-nahiezko soldadutzaren aurka daudela. Horrela, aurtengoan mobilizazio ugari eraman dute aurrera.

Ostiralean Arrasateko eskolek grebara irten zuten, ikasleen borroka egunaren barruan. Aldez aurretik ikastetxe bakoitzean bozketak egin zituzten honako emaitza hauekin: 1.315 botu eman ziren. 1.215 soldadutzaren aurkakoak, 70 soldadutzaren alde eta 30 baliogabeak.

Gauzak horrela, greba eguna egin zuten EPPn, Institutuan, San Viatorren, Eskoriatzako Irakasle Eskolan eta Aretxabaletako PEN, kasu guztietan greba % 100ak onartu zuelarik.

Argi dago; gazteak dira urtero-urtero joan beharrean aurkitzen direnak, eta berriz argi utzi dute ez dutela joan nahi.

Ostiralean ere, eguerdi aldean Sebero Altuben 400nen bat gazte bildu zen batzarrean. Ondorengo manifestazioan, Biteri-Garibai inguruan trafiko-mozketak egin zituzten.

Halere, 130 arrasatear bonboan!



Gazteek ez dute joan nahi

## Igandeko zozketa (Gipuzkoan)

### Jaiotze data

#### Lur Armada

Abuz. 3tik irail. 15era  
Irail. 15etik apiril. 12ra  
Apiril. 13tik apiril. 20ra  
Apiril. 20tik apiril. 25era  
Apiril. 25etik maiatz. 12ra  
Maiatz. 12tik maiatz. 23ra

#### Aire Armada

Maiatz. 24etik ekain. 2ra  
Ekain. 2tik ekain. 21era  
Ekain. 21etik ekain. 25era

#### Itsas Armada

Ekain. 25etaik uztail. 22ra  
Uztail. 22tik abuz. 2ra  
Abuz. 2tik abuz. 2ra

### Nora

Eki-Pirinear eskualdea  
Mendbale-Pirinear eskualdea  
Balear eskualdea  
Kanariar eskualdea  
Ceuta  
Melilla

I Aire eskualdea  
III Aire eskualdea.  
Kanariar irltara.

Kantauria  
Gibraltar  
Kanariar irlak.



## Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea  
Jose M<sup>a</sup> Gomez doktorea  
A. Otalora doktorea  
A. Estomba doktorea  
M<sup>a</sup> Jose Ruiz doktorea

*Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diagnostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia etab.*

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...

Jose Luis Higura: Kirurgia, basektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara  
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE

## Txandaka

### Zaldibarreko zumarrak

Duela bi asteo ostegunean, hilak bi, arratsaldeko ordubiak inguruan haize buhunba batek Zaldibarreko zumar bat hautsi zuen, enborraren goiko erdia, adar eta guzti, lurrera bota zuela-rik.

Benetan eguraldi arraroa jasan behar izan dugula udazken honetan: lehorte itzela, hego-haize gogorak eta azkenik euriteak (110l/m<sup>2</sup>koak hiru egunetan)

Kezkagarria eta gaisotasun iturria zalantzarik gabe, baina gure zuhaitz hau ez da eguraldi gaiztoaren biktima izan.

Zaldibarren bertan beste hiru zumar eta hainbat astigar badago, astigarrak gordinak; zumarrak, ordea, ihartuak.

Zumarra edo zugarrondoa (Ulmus) zuhaitz mota arrunta da Europan, baina gaisotasun bat dela medio "grafosis" a hain zuzen desagertzen ari da.

Duela urte batzuek jada, nahiko hedatua zen izurrite hau Europan zehar, eta honen ondorioz hain ugari ziren zugarrondoak lurreratuak izan ziren. Nahiko grafikoa da Iruñeko kasua: Sarasate pasealekua, Takonera lorategia, Gotorleku itzulia eta beste pasealeku batzuk, zumarrez josita zirenak gorriturik gertatu ziren, nahiz eta udal honetako lorategi zaintzako langileek mila saiakera egin gaisotasunarekin amaitzeko. Alperrik. Azkenik, borroeroen lana egin behar.



Josu Izquierdo \*

Arrasateko zumarrak kutsagaitz ez izanik eta inolako tratamendurik jaso ez zuten, gaisotasunak jota suertatu ziren, baina oraindik ere zutik dira, oso egoera txarrean baina zutik. Udaberrian atera ohi dituzte kimu berriak, hostoak irten ere eta bere-

hala zimurtzen hasi guztiz ihartu arte, bitartean azala zatika erortzen zaielarik.

Eritasunak honako prozedura hau darama: insektuak azaleko arrailaduretatik sartzen dira, lopiak alegia; enbor barruan direla, bideak zabaltzen dituzte eta hauetatik "Ceratocystis ulmi" onddoa zuhaitzaren barruko hodiak kutsatuz, hostoak zimurtaraziz, kalte larriak eragiten dizkio ihartu arte.

Hauxe gertatu zaie Zaldibarreko lau zumarrei eta gaur egun zeharo siku ez badaude ere, barruan ez dute egur esponja baizik.

Bada garaia norbait ohartu dadin, eta erremediorik ez dutenez, behar dena egin dezaten.

Zaldibar, eguraldi ona den bitartean umeen jolastoki eta nagusien atsedenekua da. Ez gaitezen kalte handiagoren zain egon. Ez bilatu aitzakiarik: "zer esango ote ekologistek?"

Sarritan, auskalo noren interesgaitik, zuhaitz mardulei sartu dizkiete motozerrak eta benetan traste hauek erabili behar denean motozerrerrek ez omen dute gasolinarik.

(\*) Irakaslea

### ■ Gazteen bazkaria

Datorren asteko "Gazteen egunak" programaren barruan, 25erako, larunbata, gazteen herri bazkaria antolatu dute Musakolako kiroldegian. Prezioa 1.300 pta.koa izango da, honako menu honekin: Marmitakoa, oilaskoa, postrea, etab. Txartelak, 21a baino lehenago Hire edo Ederran egongo dira salgai.

### ■ Autobusak Donostiara

Eguzki taldeak autobusa antolatu du, larunbatean Donostiara joateko Irurzun-Andoain Autobidearen aurkako manifestaldira. Autobusa arratsaldeko 4etan irtingo da. Izena emateko, jo Irati edo Biona tabernetara.

### ■ Afrikari buruzko astea

Pasa den asteko alean, erruz kale-ratu genuen Afrikari buruzko astea Kultura Batzordeak antolatu duela. Astearen egiazko antolatzaileak Komite Internazionalistak izan dira. Bakoitzari berea.

### ■ UCEMen inbertsioak

600 milioi inbertituko ditu UCEMek hurrengo urteotan, ekipazio berria ekartzeko hasi nahi duten egitasmoaren barne. 307 milioi Arrasaten transformatu metalikoe-tan, 248 milioi Oñatiko Zentral hidraulikoan (unitate elektromagnetikoak berrizteko), eta 60 milioi Bergarako ur-jauzia birraktibatze-ko.

### ■ AEKide kanpaina

Diru arazo larriak medio, AEK-k bazkide izateko txartela kaleratu du AEKide kanpainaren barne, nahi izanez gero bakoitzak ahal duen neurrian diru laguntzak emateko. Ordainketak 3 hilabetero, 6 hilabetero edo urtean behin egin daitezke.

# ATOR



PEUGEOT TALBOT

INDAR DINAMIKOA

P-405 DIESEL eta  
TURBO-DIESEL  
INTERCOOLER BERRIA

Arrasate, Gipuzkoa Etorbidea z/g

Tfnoa: 79 94 11

Bergara, Torrekua 2, Tfnoa: 76 23 75



izen propioak



ETBko *Kalejira* programan, Juan Luis Azkarate arrasatearra eta Eli Alberdi zumarragarra izan genituen lehiakide. Bikote konpetente hau Miramonera hurbildu zen, azaroaren 3an, programa aurretik grabatzera. Asteartean, hilak 21, telebistan gaueko 9etan.

■ Jon Sarasua, 23, bertsolari aretxabaletarrak beste beka bat irabazi du Eusko Jaurlaritzatik, oraingoan 250.000 pta.koa, poesia mundua lantzeko. Jon Soziologia ari da ikasten. Argia, Euskadi Irratia eta Punto y Horan egin izan du lana. Hasi berri den Bertsolari Txapelketan ere esku hartuko du.

Jorge Markiegi eta Elena Mendieta Arrasateko parrokian ezkondu ziren, uztailaren 29an. Mila zorion!



Epelde

■ Jose Mari Larrañaga, 48, Arrasaten bizi den eskoriatzarra Argentina, Uruguay eta Txilen egon da bi astebetetz, euskal kooperatiben mundua ezaguterazten, Eusko Jaurlaritzak antolatutako jardunaldien barruan. Jose Marik Ikasbiden egiten du lan. Heziketa sozio-kooperatibo saileko zuzendaria da. Aurretiaz Ederlanen eta Fagorren ibilia dugu korrikalari sutsu hau.

■ Amparo Osinaga, 34, joan den uztailetik Mondragoeko Umezaintzak duen administrari berria. Amparok Enpresa Zientziak ikasi zituen Donostiako ESTEn. Hamaika urtez Eskoriatzako Udalaren idazkaria izan zen.

■ Xabier Salaberria, 47, abokatua da Fagor taldeko lehendakari berria, oraingoz ihardunean, Alfontso Gorroñogoitia ordezkatzuz. Xabier Ermuan jaio zen, Zuzenbidea Deustun ikasi zuen eta 1969tik Fagorren ari da lanean.



Udazkenak inaustarora ekarri digu. Abadiñoko *Parques y jardines* enpresakoak gogor ibili dira Sebero Altubeko platanondo eta aranondo gorriei hostoak moztzen, postura arriskutsuetan gainera.



**GATZAGA**

Jatetxea

**Arrasateko  
jatetxea**

Olarte kantoia 3,  
Tfnoa: 79 84 53

**J. M.  
Heriz**

axuleiua

Porcelanosa, Azuvi, Pamese...  
Otalora Lizentziatua. Arrasate

# San Andres etorkizunari begira

## Bukatuta auzoari buruzko bi ikerketa garrantzitsu

*San Andres auzoa birregokitzeko Suradesa eta Udalak aurrera daramaten ikerketek dagoeneko eman dituzte bere lehen emaitzak.*

*Ikerketa soziologiko eta eraikuntzen egoerari buruzko ikerketak amaituta daude eta orain proposamen zehatzak egitea baino ez da falta.*

*Auzo hau, gure bailarako zenbait auzo bezalaxe, 60. hamarkadan industriaren garapenaren ondorioz, sortu zen etxebizitza behar larriari erantzuteko eraiki zen. Sortu zenetik 30 urte pasa direnean, bere akats eta premiak ezin izkuta daitezke eta egoera konpontzeko martxan jarri da birregokitze plana.*



Auzoko etxeek ez dute onolako orekarik mantentzen

### **Gazteak eta zaharrak nagusi**

Edozein auzo eraberritzeko orduan ikerketa soziologikoa ezinbestekoa dugu, ezer egiten hasi aurretik biztanleen ekonomi egoera, premiak etab. jakiteko. San Andres auzoa Arrasaterekin gonbaratuz gero, berezitasun nabari batzuk ditu. Horrela, 1920-30 urte inguruan jaiotako jendea —auzoaren %20 suposatzen dutenak— eta berauen seme-alaba gazteak dira nagusi. Datu adierazgarria, kontutan izan da batzuk jubilatzeaz daudela, urteen poderioz, beren diru-ahalmena gutxitu egingo delarik eta besteak, neurri handi batean, ikasten edota langabezian aurkituko ditugula. Auzoaren etorkizun ekonomiko larriaren adierazgarri dugun datua, 25-45 urte bitarteko jendea izaten bait da auzoaren

karga ekonomikoa bere gain hartzen duena eta adin horretako jende gutxi aurkituko dugu San Andresen. Aipatzekoa ere, adineko jendeari lehen ez zituen beharrak sortzen zaizkiola, igongailuarena esaterako.

Adineko jendearen artean etorkinak dira nagusi. 65-70 urte bitartean etorritako inmigranteen laurdena auzoan aurkituko dugu. Gazteen artean berriz, %85a herrian jaiotakoa dugu, auzoak izan duen integrazioa adieraziz.

Jaiotze-tasa 1982tik aurrera gu-

txitu egin da, heriotze tasa 1986tik aurrera igo egin den bitartean. Auzo —orokorrean gizartea bezalaxe— zahartuz doa bada.

Bestalde, mugimendu migratorioak 1981etik aurrera negatiboak suertatu dira auzoarentzat. Herrian etxe berriak egitearekin bat eman ohi da San Andres auzoan etxe-uzte gehien. Hipotesi baikorrenak 15 urtetan auzoa 400 pertsonak uztea aurrirakosten duen bitartean, ezezkorrenak 800. Datu kezagarria, honek etxebizitza hutsen gehitzea suposatuko luke eta.

### **Gehienak industrian**

San Andres auzoan populazio aktiboak biztanlearen %44a osatzen du, berauetatik %25a langabezian aurkituko dugu. Nahiz eta langabezian gizonak beste emakume egon, lanean, lau gizoneko emakume bat dugu. Lanean dihardutenen artean, %74ak industrian dihardu. Gipuzkoan biztanle aktiboaren %49 bakarrik ari da sektore honetan. Pentsatzekoa da, industrietatik zerbitzuetara aldegingo duela langile ugari etorkizunean, eskulan kualifikatuaren beharra handituz doan heinean.

Auzotarren errenta aztertzerakoan, gehienak %85ak, 100.000 pta. baino gutxiago irabazten du. Edonola ere, datu hau familiburuen

## **San Andresen Arrasaten baino jende gehiago ari da goi mailako ikasketak burutzen**

errenta kalkulatu atera da, familian beste diru-sarrerarik dagoen kontutan hartu barik.

Gaur egun goi mailako ikasketak burutzen milako 24k dihardu San Andresen, Arrasaten 18 diren bitartean. Datu honek, auzotarren gaitzite nahia isladatzen du, gaur

egun auzotarren milako 10ak baino ez bait ditu goi mailako ikasketak.

**Hiru ondorio nagusi**

Ikerketa soziologiko honen emaitzek, hiru ondorio nagusi azalatu dute: biztanlegoaren gutxitzea, biztanlegoaren zahartzea eta etxebizitza hutsen ugaltzea, alegia. Hiru faktore hauen ondorioz, bigarren eskuko etxebizitzek konpetibitatea galtzen dute merkatuan.

Aipatutako konpetibitatea galtzean, etxebizitzek balioa galduko dute eta honen ondorioz, auzoa biztanlego marginatuaren bizileku bihurtu daiteke.

Arazo hauek ekonomikoki askeak diren gazteak -25-45 urte bitartekoak- auzoan geratzea lortuz edota familia gazteak erakartzeko bideak jarriz konpon daitezke.

**Ezinbestekoa hobetzea**

Ikerketek garbi azaltzen dute auzoaren bizi-kalitatea hobetu beharra,



Trafiko arazoa larria izan arren, beste auzo batzutan baino istripu gutxiago suertatzen da

etxebizitza eta zerbitzuak hobetuz.

Horretako, Suradesaek, arkitekto bat kontratatu dute auzotarrei eraintzuz hobetzeko orduan nondik nora jo behar du laguntzek.

Atarietako funtzionamendua

zein den jakin ahal izateko, inkesta bat banatu da biztanleen artean.

Birregokitze-lan hauen bitartez, gehien bat edifizioen egitura hobetu nahi da, etxeak nagusiki konponduta daude eta.

**Auzo habitagarriaren erabateko aldaketa**

**S**uradesa elkartekoek San Andres auzoko etxeen ikerketa egiterakoan, arazo ugari egin dute topo, Arrasateko Udaletxean nahiz Foru Aldundian zein Eusko Jaurlaritzan dokumentazio ugari desagertuta dago eta.

1960. urtean, San Andres auzoaren eraikuntza plana onartu zen. Auzoa, etxebizitza sozialek osatuko zuten eta beronen eraikuntzaren ardurua San Josepe inmobiliariaren esku geratu zen.

Hasierako planaren arabera, etxeen norabidea kontutuan hartzeko baldintza zen, etxe eta kaleak eguzki begira egon zitezten. Etxeak berdeguneak inguratzen zituztela eraikiko ziren, oinezkoek auzoa zeharkatu ahal izateko bideskak

eginez eta kotxeentzako ibilbide trixia antolatuz. Auzoa 878 etxek osatuko zuen, eta honez gain eliza, zinema eta eskola izango zuen.

Edonola ere, 1966an plana aldatu egin zen, etxe kopurua eta dentsitatea handiaraziz. Gaur egun auzoaren dentsitatea Ha-ko500 pertsonatik gorakoa da. Kontutan izateko datua, ontzat ematen den dentsitatea Ha-ko300 pertsonakoa dela jakin da.

Aldaketan ondorioz, zinema desagertu egin zen -errentagarritasuna erabiliz aitzakia gisa- dorreak agertu eta eskolak lekuz aldatu.

Gaur egungo San Andres auzoa, ikus dezakegunez, hasierako auzo haren bestelakoa dugu eta lau pisoko etxeen

parean dorre izugarriak ikus ditzakegu. Komertzio gehienak auzoaren iparraldean aurkituko ditugu. Gaur, auzoa egin zenean baino askoz ere auto gehiago dagoenez, aparkaleku eta trafiko arazoa ere larria da eta inolako koordinaziorik gabe egindako konponketak goitik beherako txabolismo itxura ematen diote auzoari.

Kontutan izan da, San Andres auzoa 60. hamarkadan etortitako jendeak zuen beharrari erantzuteko eraiki zela, etxeek gabezia ugari dute, igongailuak, isolamendu termikoak, etab. Bestalde konponketak bakoitzak bere etxean egin dienez, eraikuntzek eskasia larriak dituzte urteen poderioz hondatzen joan dira eta, erretilu eta bajanteetan esaterako,

**PUB HAIZEA**

**ERAÑA**  
**AHOLKULARITZA**  
**OROTARAKO**  
**ASEGURUAK**  
 Kontzesifto kalea 4, behea  
 Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

# HITZALDIA

**Gaia:** "ZENBATERAINO ALDATU DA EGUTALDIA AZKENOKAZ?"  
**Hizlaria:** PELLO ZABALA (Arantzazuko metereologi zentruaren arduraduna. Euskadi Irratian berriemalea)  
**Noiz:** Azaroak 23, osteguna. Arratsaldeko 7etan  
**Non:** AEDren lokalean (Pablo Uranga4, etxabea)

**ANIMATU ETA ETORRI!**



**Anboto**

**INBERTSIO ETA ZERBITZUAK  
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK**

Salgai edo alokatzeko dauden etxeak, Leintz bailara eta Oñati aldekoak batez ere, behar ditugu Anboto Inmobiliarian

Propietate inmobiliarioaren agenteak, inmobiliaria honetan egindako salmenta eta kontratuak garantizatzen dira.

**FIDA ZAITEZ**

**Iturriotz kalea 11, Tfnoa: 79 20 48 ARRASATE**

**AURRERATZEKO**



**AIZKORA**

**AUTOZERBITZUA**

Maalako Errabala, 7. Tfnoa: 79 15 56

**PAPER PINTATUAK - PINTURAK**

**A. ZANGITU**

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

**ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI  
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN**

**IZEN-DEITURAK**.....

**HELBIDEA**.....

**HERRIA**.....

**Arrasate pasealekua 3 bis, Behea ARRASATE- Tfnoa:79 71 64**

**ARRASATE  
PRESS**

**79 71 64**

# “Gaiso askok urteak ematen ditu hemen”

## Justo A. emakumeen psikiatrikoan 20 urtez lanean

*Justo. A.k Santa Agedako emakumeen ospitalean dihardu lanean. Urte ugari eman dubertan, Santa Agedako errealitatea oso ondo ezagutzen duelarik. Hizketa garbi eta atseginekoa, oso prest agertu zaigu hango gorabeheraz hitz egiteko*

— *Arrasate Press: Zein garapen izan du Santa Agedak zu hemen lanean zabilazanetik?*

— *Justo:* Aldaketa ugari izan da. Gaur egun, emakumeen ospitaleak eraikuntza berria du, tratu berezia eman zaiolarik ostalgintzari. Deigarria da, berriz, gaur egun Santa Agedak ez duela burdin-hesi edo antzekorik. Segurtasun-neurriak orain era finago batez lortzen dira.

Osoabide psikiatrikoen aldaketa ere nabaria izan da. Lehen, aseguru sozialean ez zegoen psikiatria zerbitzurik. Gaur egun osasun zentruak bailara ezberdinetan jarri dira gaixoari lehen atenzioa eskainiz. Berauen ahalbidea gainditzen duten gaisoak, ospitale arruntetan sartu beharko liriteke. Gaisotasuna luzea bada, gurea bezalako zentru berezitueta-  
ra zuzenduko dira.

Santa Agedan, gaur egun, dagoen gaiso ugari, orain dela hogeitau urte ere hemen zegoen. Gaisotasun kronikoak tratatzen ditugulako suertatzen da hori.

— *Eta gaisotasunak tratatzeko erak aldatu egin dira?*

— Bai, gaur egun lantaldeak ditugu, psikiatrekin batera gizarte-laguntzaileek psikologoek etab.ek egiten dute lan.


Lehen baino baliabide

farmakologiko gutxiago dugu, guk erabiltzen ditugun sendagaiak komertzialak ez direlako. Bestalde, eraginkor-  
rak izan diren metodoak, edota urte luzetan bakarrak izan direnak, gaur egun ez dira erabiltzen, elektro shock-ak esaterako.

— *Ba al dago desberdintasunik, zoroetxe eta psikiatrikoen artean?*

— Ez dakit baina egon beharko luke. Guk zoroetxe, nahastea dagoen lekuari deitzen diogu. Gaisoei aterpea ematen zaie, ez dago tratamendu bereziturik eta psikiatriari dagokion baino patologia gehiago jasotzen da.

Ospitale psikiatrikoak, beste edozein ospitale bezala, helburuztat sendakuntza izan behar du eta teorien be-



Justo A.

Gaisoak sintomak izkuta ditzake eta guk ez dugu inolako makinarik gaisorik dagoela jakiteko. Gaisoak sintomak izkuta ditzakeela kontutan izanik, ez dugu sendatuta dagoenik esaten, sintomarik ez duela baino.

— *Edozeinek sofritu al dezake buruko-gaisotasunen bat?*

— Nire ustez gaisotzeko joera heredatu egin daiteke eta norberaren bizitzan jasan ditugun faktoreak direla medio, gaiso gaitzeko edo ez.

baina bere status-a bai. Gurea bezalako erakunde handiei egin zaien kritika gogorrenetakoa “instituzionalizazioa” da. Instituzioak bere patologia propioa sortzen du. Zaharren Egoitzak, egoitzak, horrelako erakunde haundiek, ekimena ken arazten diote jendea, jendea eroso bihurtzen da eta moldatu.

Dirua, janaria, lo egiteko lekua dute. Jendeak hau bere egoitzat hartzen du. Arrasatera beste edozein auzotar bezala jaisten dira.

— *Edozein modutan ere, gaur egun ez al dira Arrasatera gutxiago joaten?*

— Ez gutxiago ez, inoiz baino gehiago joaten dira. Edozein modutan ere, lehen baino gutxiago bereizten dira, hobeto janzen dira, ez dute makilaia baldresik eramaten eta arropa ere ez dute oso denboraldiz pasatutakoa erabiltzen.

Bestalde, Kontutan izatekoa da ospitale barruan erosotasunik ere badute, nahiko kafetegi atsegina, aisialdirako lekuak...

## “Arrasatera inoiz baino gasio gehiago jaisten da, baina lehen baino itxura hobearekin”

hintzat sendaezina den guztiak ez luke hemen egon behar.

— *Buruko gaisotasunak sendagarriak dira?*

— Psikiatrian sendakuntza hitzari diogu beldur gehien. Gaisotasunaren sintomarik ez duela agertzen jarriko dugu, baina ez dugu esango sendatuta dagoenik.

Guztiok izan genezake stress edota depresio txikiren bat, baina gaitz larriak ez.

— *Zure hitzetan jendeak ez du onartzen bere gaisotasuna, beraz Arrasatera jaitsi eta berriz Santa Agedara itzultzen den jendeak onartu du gaisotasuna?*

— Gaisotasuna ez dakit



Ez daude denak

## Eskubaloian Txapeldunak!

Arrasate Kirolak-ek 20 — Ormaiztegi 19

Eskubaloian, larunbat arratsaldean zita garrantzitsua izan zuten gure jokalariek. Federazio koparen finala jokatu behar bait zuten Ormaiztegi taldearen aurka, Zumarragan, arratsaldeko 6,30tan.

Aldez aurretik ez zen partidua erraza. Gogoratu behar Ormaiztegi taldea izan zela Musakolako kiroldegian garaile gertatu zen etsai bakarra, bere momentuan jokatutako neurketan 13-14 nagusitu zelarik.

Une hartatik aurrera arrasatearrek joku sendoagoa aurkitu zuten, talde lana biribildu, eta Federazio kopan parean jarri zitzaizkien aurka guztiak gainditu zituzten: Beasaineko CAF, Zumaiako Pulpo eta Usurbil taldeak hain zuzen ere.

Gauzak horrela, esan bezala larunbateko finalera heldu ziren gure jokalariek. Nobedadea, azken orduko fitxaketak ziren, Juan Manuel Errasti eta Gorka Lasa. Aipatu behar ere txalo beroa merezi dutela Zumarragaraino iritsi ziren zaletuek.

Larunbateko partiduari ez zioten ondo ekin, atsedenaldira 9-11ko emaitzaz heldu bait ziren. Dena den, bigarren zatian gauzak hobetu eta amaieran 20-19 nagusitu ziren arrasatearrak. Euskal Federazioko lehendakari den Carro jaunak eman zion aurtengo kopa Ramon Azkarate kapitainari. Zorionik beroenak Arrasate Kirolak Eskubaloia Taldeko zuzendari, entrenatzaile eta jokalariei!!

### Pedruskoren berdinketak

Ohitura bihurtzen ari da aurtengoan Pedruskok bere neurketak beti ere berdinketaz amaitzea. Azken asteburuan Gazteizen jokatu zuen Atletico Alaves taldearen aurka, eta oraingoan ere 2-2ko emaitzaz itzuli ziren etxera. Golak Nandok sartu zituen, 25 eta 67 minutuetan, biak ere penaltz. Honenbestez Pedruskok 9 puntu lortu ditu 9 ihardunalditan. Benetan erregularrak San Andresekoak!

### Fortunak 16

Arrasate Kirolak-ek 16

Emaitza arraroa suertatu zen pasa den asteburuan, ez bait da ohizkoa rugbyen neurketa bat enpatatzea. Partidua bera ere nahiko arraroa izan zen. Hasieran ondo arrasatearrak, baina markagailuan Fortuna taldea aurretik. Eskerrak azken orduan Hiriarten mutilek berdinketa eskuratu zutela.

### Behobia-Donostia

4.000 bat korrikalarik hartu zuten parte igandean "XXV.Behobia-Donostia" proban. Modan dago atletismoa Arrasaten, eta bertan izan genituen 30 herritar inguru.



**ITURRIOTZ TABERNA**

**GIRORIK**

**JATORRENA !!**

**Tfnoa: 79 16 04**



**ARDILLA**  
**artileak**

*Puntozko jantziak eskuz eta makinaz egiten dira*

**Kalealdea 13, B. Tfnoa: 79 65 93**

podiuma

**Luis Mari Ibarrondo, etorkizuneko jokalaria prestatzeko**

Futbol entrenatzaile gehienak jokalaria ohiak izaten dira, egun batean mundu horretan sartu eta jada bertan gelditzen direnak.


Luis Mari ere gaztetatik ibili izan da futboleant. *"Mondrakin urtebete eman nuen lehen taldean. Denboraldi polita gainera, hirugarren mailara igotzeko promozioa jokatu genuenean Zornotza-koen aurka"*.

Kontuak kontu, ez zuen beste munduko karrerarik egin; baina hori bai, ezin futbola alde batera utzi.

Agian horregatik ari da gaur egun mutikoak prestatzeko. *"Santi Pascualek eta biok eramaten dugu haurren B taldea, 13 urtekoekin. Ez dakit zergatik sartu ginen... seguraski mundu hau atsegin dugulako"*.

Antza handia omen dago gaurko eta bere garaiko jokalaria gazte-txoen artean. *"Egia esan gu ere berdin ibiltzen ginen. Ondo pasatzeri etorri, baina beti ere titular izateko gogo bizian: Golak sartu, ahalik eta hobetoen jokatu... hurrengo urtean goiko mailara jauzia emateko"*.

Azken urteotan, lehen ia ezezagunak ziren kirol-askotxok bultzada handia izan dute, eta hori nabaria zaie mutikoei. *"Gure taldean badaude batzuk futbolaz gain, beste kirolean ere aritzen direnak: pelotan, Igerian... Hori ona da, bakoitzak denetik proba dezala, gero*



Luis Mari, gazteak laguntzeko prest

*hobeto egiten duena aukeratzeko"*.

Mondra eta bere azpiegitura. Badirudi aurten Zuzendaritza berriak bultzada garrantzitsua eman nahi diola harrobiari, eta ondorioz astelehenero elkartzen dira talde ezberdinetako entrenatzaile eta delegatuak, bilera horien bidez momentuko arazoei irteerak aurkitzeko.

Dena den, oraindik ere funtsezkoa da jokalarien gurasoek ematen duten laguntza. *"Mutikoen aitak ederki asko portatzen dira, beti ere prest kanpoan jolasten dugunean jokalaria kotxez eramateko. Bada-kizu, semea gustora ikustearren edo-zer gauza egiten dute, eta gainera onak badira askoz hobeto"*.

Luis Mari gustoz egiten du bere lana, eta etorkizun hurbilean ere horrela segitzeko asmoa erakusten du. *"Momentuz ondo nago hemen. Aurrerago agian jubenilak entrenatzeko ikastaroren bat egingo dut, baina ikusi egin behar..."*.

Datorrela etorkizuna, eta agian harrobiko Maradonatxoren bat ere ezagutuko dugu, bai Luis Mari eta bai futbolaren zaletu garen guztiok.

**Saskibaloian bai!**

Seigarren ihardunaldian ezagutu zuten garaipena Arrasate Kirolak saskibaloit taldekoek, larunbat arratsaldean Bilboko Patronatoaren aurka jokatuak neurketan. 71-68 nagusitu ziren gure jokalaria, batez ere bigarren denboran egindako defentsari esker. 24 puntuz, Garai izan genuen arrasatearren saskiratzaile-rik onena. Datorren asteburuan Cantabria-Arrasate neurketa jokatu-ko da. Ondo egongo litzateke bigarren garaipena eskuratzea, lehen baitlehen irteteko sailkapeneko azken postuetatik.

**Mondra txarto**

Aurtengoan gure jokalariai emaitza tristeak ari dira lortzen etxeko partiduetan. Dagoeneko sei partidu jokatu dituzte Atxabalpen, baina oraindik ere ez dute garaipenik ezagutu. Igandean, Zornotzakoak izan genituen bixitari eta hauek ere 0-0 ko emaitza positiboa eraman zuten. Partidu itsusia, aspergarria. Golik ezean, ostikoka eta protestaka ibili ziren bi taldeak; azkenean hiru jokalaria kaleratu zituen epaileak: Txitxo eta Unanue bizkaitarrak, eta Aranburuzabala arrasatearra. Asteburu honetan Abetxukora joan behar dira gure jokalariai eta bertan izango dute zerbait berreskuratzeko aukera. Ea ba!

**Denborapasen soluzioak**

**Zutabeak jauzi dira**

"PSOE Mondragoeko lehen partidua izango da eta alkatea kontuz ibil dadila, oso jodiduta dauka eta". J. L. Lana

OKENDO

KIROLAK


Iritsi da OKENDO KIROLAKera udazken-neguko moda !

Maalako errabala 13, Tfnoa: 79 92 76 ARRASATE

## Freskotasuna txapelketara

Beti esan ohi da bertsolariak txapelketan kikildu egiten direla eta nerbioen eraginez, daukatenaren erdirik ere ez dutela ematen. Mikrofonoak, hainbeste jenderen aurrean egoteak eta txapelketan dagoela pentsatze hutsak errespetua sortzen bait dio edozeini! Urtean zehar saio ugari egiteak ere badu, noski, garrantzirik, entrenamenturik onena bera baita. Orainarteko saioetan dextente nabaritu den kontua dela uste dut, ibiliari antzematen zaiola, alegia, halako konfidantza bat, nerbioak nerbio.

Besteak beste, horixe da, ustez, Imanol Lazkanori gertatu zaiona, aurreko txapelketan espero zenik ez eman arren, 89ko honetan bere lekuan, konfidantza handiz eta irrifarreri ezpainen eutsiz ikusi baitugu. Hemanikoan batez ere. Orduan, hasi aurretik lasai zegoen eta buka-



tutakoan egindakoarekin gustora, eta Laudion, pilota ongi gozatu gabe utzi arren, eman zuen berea. Sailkapenean igarri da hori, jakina, lehengo postuan baitago. Imanolek plazan ohi duen freskura ekarri du txapelketara, eta bere bertsogintza eza-gutu eta atsegin dugunok pozik

gaude, beste inori ezer kendu barik. Finalerdietan ere eutsiko al dio goiari...

Azken laurdenak bukatzeko saio bakarra falta da, Lesakakoa, eta orduan erabakiko da hurrengo faseko izen zerrenda.

*Arantzazu Loidi*

a.eme.interiores

GARIBAI 9  
20 500 ARRASATE  
(GIPUZKOA)  
Tlfnoa: 943-791503  
Telefax: 791489

barrukaldeko arkitektura  
etxeko ekipamendu osoa  
merkatal lokalen instalazioa

ARKITEKTO TEKNIKOA ETA APAINZAILA TITULATUAK DAUZKAGU



# Azkenean, Stiff Little Fingers

Ametsa dirudi. Fingers-ak gure artera datoz, azkenean. Taldea orain hiru bat urte berriz elkartu zenetik, inguruetako kontzertu antolatzaile guztien ikusmiran egon da. Bolada luze honetan, banaka-banaka, ingeles mito ia guztiek dastatu dituzte gure kaleak. Baina Fingersak ez dira "beste talde bat gehio"; Fingers-ak profeta dira lur honetan, Jainko. Milaka jarraitzaile lortu dituzte gure artean, geroz eta lan hobearen fruitu, eta izugarri nabaria euskal rock musikan izan duten eta duten eragina. *The Clash* eta *Stiff Little Fingers* Euskal Herriko makina bat talderen guraso ditugu (edo maisu, bederen).

Bost diska eta single guztein bilduma utzi zigun Ipar Irlandar talde honek 82an kitarrak eskegi zituenean: "*Inflammable Material*" (79), "*Nobody's heroes*" (80),



"*Hanx!*" zuzenean grabatutako diska elektrikoa, "*Go For It*" (81) -Espainian argitaratutako bakarra-, "*Now Then...*" (82) eta "*All the Best*" bilduma. Dozena erdi pastel ezin gozoagoak, geroz eta hobeak, landuagoak, profesionalagoak.

Urrun geratzen dira hasiera laztak, aurrera egiteko medio eskasak, urrun euren lehen singlea autoprodu-

zitu behar izan zutenekoa, diska etxeek ez bait zuten uste "zarata" hura sal zitekeenik. Baina "Suspect Device" zoragarri haren arrakasta sekulakoa izan zen eta gaur, hamaika urte geroago, oraindik euren erreperatorioan baztertu ezin duten abesti bihurtu da. Bazekiten, bai, musikaren historian orrialde bat zegokiela, eta baita asmatu ere.

Berragerpena 87an izan zen, eta bost urteotan ez dira batere makaldu; alderantziz, eraberrituak datozkigu, indartsu. Euskal rok radikalak jai du azaroaren azken asteburuan, Arrasaten nahiz Lakuntzan izango bait dira denak. Eta zu, *Hertzainak*, *Zarama*, *Kortatu*, *Delirium*,... bezalako taldeak maite dituzun horrek, barkamenik ez duzu etxean gelditzen bazara. *Stiff Little Fingers*, non eta Arrasaten. Etzazula aukera galdu. Amets ederra.

Patxi Montero

amuebladora



mondragonesa

Zabalik gaude!!  
Erakusketa berria  
Santamainan

Diru asko ala gutxi,  
ez ondotik pasa,  
ez begiak itxi.  
Sartu, ikusi...  
eta komeni bazaizu erosi

Santamaina kalea 36, Tfnoa: 79 92 62 Fax: 791489 ARRASATE

## Kontsumerismoa. Kontsumitzailearen heziketa

Noizean behin Kontsumitzailearen Heziketari buruz informazioaren bat ematen dute komunikabideek. Horrela ohitzen ari gara eta gaia entzuna egiten zaigu. Egun hauetan, bertan, Gipuzkoako aldizkari batean, Kontsumitzaile Gaztearen ihardunaldiak Arrasaten burutuko direla agertu da. Guzti hau 1978.eko urtean hasitako prozesu luzearen ondorio da: neska-mutilak egungo eta geroko kontsumitzaileak direla kontutan hartuz, eskolatik bertatik hezi beharra planteatu zuten zenbait kontsumitzaile-elkartek eta zenbait eskolak.

Kontsumitzaileen Heziketaren helburua, eskolaren ikuspuntutik, zera da: Kontsumo-Gizartea eratzten duten alderdien aurrean ulertzeko eta kokatzeko zenbait elementu ematea. Kontsumo-Gizarte honetan desoreka handia dago sistema pro-

duktiboaren eta kontsumitzaileen baliabideen artean.

Kontsumo-Gizarte horren ulerpena, ikasleen aldetik, kritikoa eta analitikoa izan dadin nahi du Kontsumitzailearen Heziketak; horrela, kontsumitzaile mailan jokabide erresponsible eta kontzientek izango dituzte.

Baina ez dugu nahastu behar; ez dugu nahi ikasleak kontsumoaren teknikari bihurtzea; kontsumitzaile-mailan aurkituko dituzten arazoak konpontzeko analisi —eta kritika— mekanismoak izan ditzaten lagundu nahi zaie.

Zerbait gehiago: heziketa-prozesu guzti honetan informazioa baino garrantzitsuagoa lehen aipatutako gai ezberdinak ezagutzea da. Tailer-rak egitea, dendetara eta produkzio-zentruetara joatean, eskolan egindako azterketa konparatiboak,


inkestak, ikerketa-lanak, erosketei eta beharrei buruzko hausnarketa... ildo horretan planteatzen dira. Beraz, ikasleek ez dute testuliburu teorikorik aztertu behar edo ikasgai magistralik entzun behar, baizik eta kontsumoaren errealitateak eta beraien alderdiak, ematen diren tokietan aztertu, ikertu, manipulatu, azaldu, konparatu, kritikatu,...; ekintza guzti hauetan irakasleak animatzaile, orientatzaile, beharrezko laguntza,... izango dira, aurkikuntza-prozesua errespetatuko dute eta, momentu egokian, eztabaidaren edota analisiaren kontraste izango dira.

Azken batean, Kontsumitzailearen Heziketak kontsumitzaile kritikoak, solidarioak, erantzuleak, aktiboak... nahi ditu, eta hezkuntza-prozesuak asmo horiek adierazi nahi ditu.

*Klarion taldea*



Kalitate-garantia



**YOSU** C.B.

*Aluminio eta P. V. C. ko arotzeria*

### Abantailaz beteriko gure leihoak

- \* Hotz, zarata, euri eta haizearen kontra babesten dute
- \* Europako teknologia aurreratuena P.V.C. leihoetan.
- \* Edil-Plastik sistemaz YOSU c.b. arotzeiak eginak.
- \* Kalitate prezio erlaziorik onena

**Lantegi eta erakustokia: Labe Garaiak. z/g Tfnoa: 76 53 69 BERGARA**

**Erakusketa Berria: Kanpantorpea, 2 (Parrokiaren aurrean) ARRASATE**



# GATEEN EGUNAK

## Azaroan 21etik 26ra

Ekintza ugari eta jai giro ederra Arrasaten

- HITZALDIAK
- BIDEO EMANALDIAK
- TUNAK
- ROCK JAIALDIAK
- FESTA TROPIKALA
- TXALAPARTA
- ZANKOAK
- KOADRILEN BAZKARIA
- ANTZERKIAK
- XAKE PARTIDAK
- GLOBU GATIBUA
- DELTA HEGOA
- BONBA JAPONIARRAK
- UMEENTZAKO JOLAS-TAILERRAK
- TXOKOLATADA
- BURUHANDIAK ETA GAITEROAK

...

Egitaraua zuen etxean jasoko duzue

Udaleko Gazte Zerbitzuak eta herriko zenbait gaztek  
antolatuta



*Jose Aranzabal*

ELEKTROGAILUAK

Iturriotz, 15

Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin

**KOLTA**

FAGOR SUKALDEEN

HORNIDURA OSOA

OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

**TABIRA  
DIETETIKA**

**Kosmetika eta produktu  
naturalak  
Estetisiena**

Munar 8, ARRASATE

ORTZI

erretegia

Angiozar Auzoa

Tfnoa: 76 22 68

BERGARA

**MIANGO**

*lotsagabe jazteko*

Postas 5, Tfnoa: 23 04 48 GASTEIZ

**ARRASATE  
PRESS**

*Bidal ieazkiguzu  
zure kolaborazioak*



**FAGOR**

**iKER**

**SUKALDE  
LILURAGARRIAK**

**ARRASATE**

Bainugela-erakusketa: Zarugalde kalea 52, Tfnoa: 79 99 42

Sukalde-erakusketa: Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 43

# Gaixoen eskubideak

Azkeneko hauteskundeetan Osasun publikoak atentzio handirik izan ez bazuen ere, gai hau ez da beti ahazturik egoten; eta noizean behin gobernuek gaixoez arduratzen dira eta gainera neurriak hartzen dituzte, nahiz eta propagandistikoak izan, efikazak edo eraginkorrak baino gehiago eta behar adina publizitate-rik ez eman.

Edozein hiritar izan daiteke, eta horrela da une konkretu batean, zerbitzu hauen erabiltzaile eta kontsumitzailea. Osakidetza dugu zerbitzu hori; eta gure eskubideak zeintzuk diren jakitea interesgarria iruditzen zaigu.

Arrasatek, Euskal Komunitate Autonomoan beste edozein herritan gertatzen den bezala, baditu medikuntza-zerbitzuan arazo batzuk,

*"itxarote-zerrendak"* adibidez.

Ba al dakizu zeintzuk diren zure eskubideak gai honetan?

Ez? Horrela bada, irakur ezazu ondoren doana:

Eusko Jaurlaritzak emandako dekretuan agertzen denez "Osakidetza" euskal zerbitzuaren erabiltzaileek, osasun-beharrak beteko dituen "sare" bat izateko eskubidea dute, eta "sare" honek sanital errekurtsio publikoen erabilpena eta eraginkortasuna izango ditu; era berean kalitate asistentziala garantizatzen duten mekanismo profesionalak ere bai.

Hauek ditugu erabiltzaile eta gaixoen eskubideak eta betebeharrak osasun-zerbitzuz sinatutako gutunean agertzen denez:

– Pertsona bakoitzak bere osa-

sun-egoeraren informazioa jasotzeko eskubidea.


– Itxarote-zerrenden informazioa jaso eta zerrenda horren zergatia ezagutzeko eskubidea.

– Istorio klinikoaren sekretua eta konfidentzialtasuna gordetzeko eskubidea.

– Zalantza sortzen denean, beste eritzi bat jasotzeko eskubidea, osasun-zerbituzko beste mediku batena noski, osasuna arriskuan jar dezakeen tratamendua, interbentzio kirurgikoa edo beste edozein terapia hasi behar denean.

– Famili medikua aukeratzeko eskubidea, eta era berean, ospitalez edo espezializatutako medikua behar denean, famili medikuaren adostasunarekin aukeratzeko eskubidea.

*Eukeni Olabarrieta  
Arantxa Lizaso*



*Hau  
zer den  
jakitea nahi  
ba duzu  
etor zaitez  
gurera*



Otalora kalea Tfnoa: 79 29 09 ARRASATE

**LOREA**  
Oinetakoak  
eta poltsak  
Paz 9, Tfnoa: 25 66 32  
GASTEIZ

**ALTUNA**  
**FRUITATEGIA**  
Kalealdea 11n  
eta Merkatuan  
Tfnoa: 79 90 75 ARRASATE

**SOKOA**  
Zeharkale estalia Arrasate

**PAZI-OLA SA**  
Zaldizpe kalea, 2  
Tfnoa 79 29 91  
ARRASATE

# Amerikarrek ez dakite zer daukaten

Harriturik esan zidaten Iñurrategi anaiek Barajaseko aireportuan, yan-kien lurraldeak bihotzik gogorrena txunditzeko lain xarmarik baduela. Yosemite bailaratik zetozen. Gehienok ezagutzen duzuen kirola egitetik, eskalatzetik, hain zuzen ere. Haretxen egarriz joanak ziren itsasoa zeharkatuaz sasoi batean diru bila bezalatsu, oraingoan harri bila. Makinaxo batek helduko dio buruari erokeria doble hori egin daitekeela pentsatze hutsarekin. Eskalada, zoroen kontutzat jotzen dugu askok, nahiko lan bait daukagu lur lauean ibilita ere, eta gainera nora eta Ameriketara. Mutilak, mutilak!

— Felix non dago Yosemite? Kontaiguzu naren berri.

Yosemite, Kaliforniako Rokosa mendikateko adar batean dago. Parke Nazional bat da. Bertan animalia



eta landarez inguratutako eskaladagune egokiak aurki daitezke. Hormarik aipagarriena "El gran capitan" baldin bada ere, gainontzeakoak ez dira txantxetakoak.

— Zer lortu zenuten igotzea? Lehenik rodajea egin genuen,

teknika ezberdina bait da hemen eta han, harria bera ere ezberdina da. Gure helburu nagusia "El Capitan" igotzea zenez, berari heldu genion bero-bero. Gorabehera batzuk izan ondoren 3 bia lortu genituen igotzea horma berean: "The Nose", "Zodiak" eta "Lurking Fear" Luzaera eta zailtasun maila ezberdinez, 2-3 egun behar izan genituen bakoitzeko.

— Ba al daukazu berriro bueltatzeko asmorik?

Horrelako saltsatan sartzeko bi gauza dira beharrezkoak: gogo haundia eta eguraldi ona (\$). Zati baten ez dugu lainopetik ateratzerik neure ustez, baina eguzkiak indar apur bat hartu bezain laster bagoaz aide.

— Ea bada denborak (\$) egokitzten zaizkizuen puntuko.

Hankamotz

## GURE AMETSA jatetxea

*bodak*

*banketeak*


*negoziotako otorduak*

Tfnoa: 79 20 97 GATZAGA

baldeana

Medikuntza orokorra  
Txertaketak  
Kirurgia  
Laborategia  
X izpiak  
Odontologia  
Ile apaindegia  
Urgentzia 76 27 97

Koldo Eleizalde 28, etxebehea.  
Tfnoa: 76 27 97 BERGARA



Gas, gasolio eta elektrizitateko berogailu eta aire girotuko instalazio elektrikoen diselnua, muntaia eta mantenua

Industriaidea, B-5, ARETXABALETA Tfnoa: 79 03 03 ARRASATE Tfnoa: 79 05 18

**ARRASATE  
PRESS**  
*astero zuekin*

BIZKAI JATETXEA

## Bizkai jatetxea

Udala auzoa Tfnoa: 79 22 15 ARRASATE



## NUTRISAN

Nutrizio-osasun eta kirol medikuntzako zentrua  
Telleria Dra., Serrano Dra., Elbusto Dra.

Gizeneria, zelulitisa, kolesterola, azido urikoa, diabetea,  
hipertentsioa...

Kirolaren egoera fisikoaren balorazioa.

Lehiaketa-aurre eta osteko eta entrenamendu eta entrenamenduko  
garaiko dietak

**KONPUTAGAILUZ PERTSONALIZATURIKO DIETA**

**ANALISI KLINIKOAK**

**ELEKTRO-ESKULTURA**

**TONIFIKAZIORAKO FUNTZIO ANITZEKO OHEA**

Kontsultak: 10etatik 1etara

4etatik 7etara (Aurrez txanda eskatuta)

Kale Aldea 11 behe, 79 65 78 ARRASATE

**VE ECUADOR**

Kontzesifno 2,  
Tfnoa: 79 14 06  
ARRASATE



## Aloña Piel

San Lorenzo 40,  
Tfnoa:  
78 18 60 OÑATI

**ARFEGA**

**Pinturak, opariak  
eta jostalluak**

Erguin 10, ARRASATE

## EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 89


### AZKEN LAURDENAK

(Azken saioak)

### LESAKAN

Azaroaren 19an, igandea  
Udal Pilotalekuan

Goizeko 11,30etan	Arrasaldeko 5etan
Luis OTAMENDI	"EUSKITZE"
Jokin SORAZABAL	ARISTORENA
Anjel LARRAÑAGA	Mikel MENDIZABAL
Josu ARRIOLA	Euxebio IGARZABAL
Jose Fermin ARGIÑARENA	"ANATX"
Jose M <sup>o</sup> IZETA	MENDIBURU
Haritz LOPATEGI	Jose Ramon ELORZA
Nikolas ZENDOIA	Jesus ARZALLUS



# ~~F~~ Jesus Elkoro etxeko tresnak

Elektroteknika

T. B.

Bideo

Bideo kluba

Magdalena 27, eta Garibal 10,

PHILIPS  
BLAUKPUNT  
SONY eta SANYO

ARRASATE Tfnoa: 79 18 86

## AEDren BERTSO AFARIA

Eguna: AZAROAK 24, OSTIRALA. GAUEKO 9,30etan

Lekua: AED Elkarte

Prezioa: 700 Pta.

Apuntatzeko epea: OSTEguna (23). AEDn edo 79 54 46 Tfnoan.

Deba Garaiko bertsolariez gain **ANDONI EGAÑA** bertsolari ospetsua izango da gure artean.  
Denok abesteko aukera izango dugu.

**ETORRI, GIRO JATORRA ZIURTATUTA DAGO!**





**ETXEBIZITZAK**

- Umerik gabeko senar-emazteak, irakasle gazteak, etxebizitza behar du lehenbailehen Bergarako hirigunean. Deitu egin 62 02 28 Tfnoa.
- Etxebizitza salgai Zabalotegi dorrean, Bergaran. Informazio gehiagorako deitu 76 17 37 edo 76 25 89 Tfnoa.
- Arrasateko erdialdean alokairuan behar dut lehenengo pisu bat edo beste bat igogailuz. Tfnoa: 78 07 46.
- Haurrik gabeko bikote gazteak Arrasaten pisu alokatua behar du. Tfnoa: 79 30 20.
- Uribe auzoan pisua salgai ganbara eta garajeaz. Tfnoa: 79 49 66
- Muntatuta dagoen pixu batean gela hartuko nuke. Jose Manuel Tfnoa: 49 14 53 . Deitu egin 8etatik 10etara.
- Errentan hartzeko etxabehea edo merkatal lokal bila gauzak sartzeko. Tfnoa: 79 94 00
- Jantzitako pisuan logela bila. Tfnoa: 49.14.53 (Jose Manuel), gaueko 8etatik 10etara.
- Apartamentua salgai. 2 logela, bainugela, ganbara, sukalde-jangela. Tfnoa: 79 26 95 (6etatik 8etara)
- Pisua salgai Urriburu kalean. Tfnoa: 79 81 79
- Pisua salgai Udalpe kalean. Tfnoa: 983-39 41 90
- Pisua salgai J.L. Inarra kalean. Tfnoa: 79 20 03
- Pisu berri-berria Erguin kalean salgai. Gas naturala eta ur beroa, egongela, bi bainugela, sukalde ekipatua. Tfnoa: 79 19 96
- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubietan)

- Pisua osatzeko pertsona bila nabil. Interesatuak helbide honetara etorri behar dira: Araba etorbidea 20, 5. esk. 5etatik 6etara (larunbatean ezik)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Astegunetan arratsaldeaz.

**LANA**

- Neska arduratsua etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 45 92. Arratsaldeko 3etatik 4'30ak bitartean edo 8etatik aurrera deitu.
- Inglesezko klaseak emateko pertsona behar da, astean 3 edo 4 ordu, goizetan (goizean goiz hobeto) interesatuak deitu 78 07 85 10etatik ordu letara, astegunetan.
- Neska haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Deitu azkar 79 42 69 Tfnoa.
- Ingeleseko irakaslea behar da "Bilboko 3." kurtsoa neska bati emateko. Tfnoa: 79 57 53 (21etatik aurrera)
- Bi haur zaintzeko eta etxeko lanak egiteko pertsona behar da. Lan orduak:8-18. Tfnoa: 79 79 69 (8etatik aurrera)
- Esperientziadun kamareroa behar baduzu. Tfnoa: 79 75 92
- Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume edo neska behar da. Tfnoa: 79 35 44 (7etatik aurrera)

**SALEROSKETAK**

- Salgai dituzun pioletak eta granpolak erosiko nizkizuke. Jabier 79 50 53

- Fagor markako ikuztailua salgai. Ondo dago eta merke salduko nuke. Deitu 7,30etatik aurrera 79 82 47 tfnoa.
- R-11 GTL berde metalizatua, SS-T salgai. Tfnoa: 79 94 86
- Soinua -96 baxua. Moreschi markakoa. Tfnoa: 79 52 40
- Prenler bateria salgai, plater eta guzti. Tfnoa: 79 46 86
- Venguri kitarra elektronikoa salgai, 3 Fender pastilaz, Strato Caster eta dagoz-kion kableak, Amplifikadore bi Doobie sarreraz, Pedal distortsioa MxR, egoera onean dagoen maleta, Jibson korda-jokubat.
- Umeentzako kotxe itsasurdina, Arrue markakoa, prezioa: 15.000 pta. Tfnoa: 79 7742 (10etatik 12etara)
- "Amstrad" Jokuak salgai. Denak erdi prezioan eta egoera onean (disketetan eta kasetetan). Deitu 7etatik aurrera 79 49 03 tfnoa. Gorka.
- Zure argazki-makinarentzako Panagor markako 200 mm-ko telea salgai. Diametroa 62. Oso merkea. Tfnoa: 79 71 64

**DENETARIK**

- Etxeko gauzak (altzariak, telebistak,...) bota behar badituzu, mesedez, bota aurretik deitu guri, tfno honetara 79 84 76 9etatik aurrera.
- Neskak erloju bat aurkitu du urriaren 13an Portaloian. Jabeak deitu. Tfnoa: 79 23 50
- Larunbatero, Oñatiko Udal Euskaltegian EGA ikastaro trinkoa, 4 ordu.

†  
**ARRASATEN HILDAKOAK**

**Marciala Zeziaga Ezkurra**  
77 urte. Azaroaren 10ean.  
**Encarnación Etxaurre Zeziaga**  
88 urte. Azaroaren 12an


**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK  
DIAN. TESTUA IDATZI ETA  
BIDALI GURE BULEGOETARA**

**TESTUA:**.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

Arrasate Pasealekua 3 bis, etxabea.  
20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

## Famauen ahotik

**Mauri Zubillaga: "Mondrauen etxak pelotarixek aurrera atarateko ezelako be laguntzaik"**



Mauri eta Tomas, Zubillaga anaiek

### Fuenterrabixa, Gatzara, Mondraue

5,6 urtekin etorri nitzuan Gatzara eta han etxauan pelotie besteik, danok eitten gaixuan pelotan. Zapatuetan Billerreleko eta Bittoixeko kanpeonatuetara jueten gitzuan.

14 urtekin Eskoitzan federaute ninguana eta gero 17kin Mondrauera etorri gitzuan bizitten, eta hemengo tomeuetan parte hartzen naixuan, jubenilletan. Orduen hemen etxauan inobe pelotan eitten auenik; Isturiz, haxe besteik ez.

### 78ko mundialak Iparraldien

Andueza VI.a zuan Españako kanpeoi, baiñe forman nebillan orduen eta bi aldiz irebazi nutzan hari. Halabe, ba, mundialerakuek selekzionaute jeozan eta trankil ninguana etxien. Egun baten selekzionadorie etorri jatan eta trajie eitten juen biher nauela. Ondo nabillela eta Anduezai irebazitte be bai eta selekzionau eifi nindduela. Pozik haundixena haretzek emun jutzan. 15000 pta ero emun jutzuen eta traje bat eifi be bai. Traje eta korbata danak bandera espāñolakin bete-

### "ZURDO MONDRAGON" MAIXUE

Nire profesorie 14 urtetatik "Zurdo Mondragon" izen dok. Hak Gatzan entrenetan jua eta ni betik harekin pelotan. Gero Mondraura etorri gitzenien be, berakin erueten nindduan entrenetan. Haretzek sortu jutzan pelotan eitteko ilusiñue.

ta. Halan izen zuan nire mundiale-tara juetioi

### Profesionalerako preparau

Nire lagunek, Zalbidea, Bergarilla...danak profesionalerako pasaute eta ni ba, 22urtekin pase-tako desietan. Urte osue entrenetan eifi naixuan eta Ladutxe, Tolosa eta beste asko pasau zittuan eta ni bapez. Geruau "Eskulari"-k emun jutzan baietza, baiñe Bergakuek seguro hartuko nidduelakuen itxi eta azkenien ezebez. Mutrikoko "Jolas Nai"-n hasi nitzuan gero eta oin "Betiko Jokoa"-n nabik.

### Umiei erakusten baiñe laguntzaik ez

10 urtien ibili nok umiei erakusten bai eta Sto Tomas eta San Juanetako tomeuetatik aparte bape laguntzaik ez dok egon. Pelotak, jantzixek, tomeuetako biejeik... danak neure poltsikotik eta gurasuenetik.

Gaur egun, pelotarixek atarateko, erakustailak biher dittuk, baiñe hartarako laguntzie biher dok eta Mondrauen etxak ezelako be laguntzaik.

*Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai*

## Zeibrekerixak

Behin Fernando Plaentziarra lau hankan zebilen farolapian eta sere-nuek esan zutsan:

— Ze pasatzen jak, Fernando, zutik egon ezinik, ala?

— Berai laguntze arren serenua be hasi zan duro bila baiña egiñalak egin arren etzeben duroik topatzen. Serenua konturatu zan Fernando beste askotan lez apurtxo bat eranda zeuala eta esan zotsan:

— Baiña, seguru hago hemen galdu dokena?

— Eguxa esan, galdu, han handikaldian galdu jatak, baiña leku hartan argirik eztauenz ba, hona farolpera etorri nok.

Serenuak nahikua barre egin ei zeban eta linternia hartuta joan ei zan duro bila.

Beste behin be, kale baztar batian topau ei zeban aurretikuan bezala, lau hankan gaiñian makurtuta, eta serenuak pentsau eban bere artian: "Gaur be gure Fernando duron bat galduta ibili biha jok". Ondora joan eta preguntau zotsan:

— Zer galdu dok, Fernando?

— Ekilibrixua

■ ■ ■ ■ ■

Plaentziako aberats-berri batek herriko bururik haundiña ei zeukan. Haren txapela, kertena ipini ezker, guardasoltzat erabili ei zeikian.

— Bene benetako erregezalia, karlista zanez, behin adarjotzaile batek esaten ei zotsan:

— Hik be diru asko egingo heban, baiña erregetzarako eztok balio.

— Zer ba?

— Hogerlekoetan hire bururik ezin leikelako kabidu.

Izan be, holako bat errege egingo balebe diru berririk etara ezin.

"Zirikadak" etik moldatuak.

*Juan Martin Elexpuru*

### X. GOROSARRI eta M. L. TROJAOLA

ERREUMATOLOGIAN SENDAGILE ESPEZIALISTAK

Frantziako Lyon-go Unibertsitatean Titulatuak

### BIZKARREZURTERAPIA

KONTSULTA ORDUA AURREZ ESKATU

San Vicente Ferrer, 4 etxebea. Esk. ARRASATE Tfnoa: 79 27 67

San Jose Policlinica. GASTEIZ Tfnoa: 945-22 33 00

## LARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA

IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



**H**auxe duzue Erdiko kalea 1930. urtearen inguruan. Espaloian begira dugun egunkari saltzaileak goiza dela pentsaerazten digu. Hurbilago dugun gizon dotoreak badirudi gosaldu berri duela Cafe Universalen, gaurko Kajoi kafetegian.

Zorua adokinatuan barrena hor doa Txaparro, ikatz banatzailea, lanera, lasai asko bere *astomobilean*. Atzean San Jose eskola, gaurko S. Frantzisko Xabier ikastola. Parrokiako plaza aldera ematen duten aterpea eta iturria ez ditugu ikusten, baina bai farola eta jarleku dotoreak.

## KOPIOTXOA

*Fotokopiak*

*Planu-Erreproduzioak Enkuadernazioak*

**IREKI BERRIA**

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82 ARRASATE

## BRANKA


*jatetxea*

**Eguneko menua  
eta karta**

Zarugalde 1, Tfnoa: 79 60 10

DENA EGUZKIAREN AURKAKO  
BABESERAKO OLANA EDO TOLDOGINTZA  
LORATEGIRAKO ALTZARIA KONPONKETAKETA AKURAK  
KANPIN BABES-SAREAK

Tfnoa: 26 22 04 - 26 11 51 Tfnoa: 22 37 66  
Portal de Villareal 14, Becollarra 4, 16. Pabilioia  
01002 GASTEIZ 011010 GASTEIZ



**ECHEBE S.L.**

**KORTAZAR  
EDARITEGIA**

*Pintxo bereziak*  
**GIRO APARTA**

Barrenkale 16,  
Tfnoa: 76 20 62  
BERGARA

**NERIAN**

Otalora 14, Behetxea. Tfnoa: 79 70 66 ARETXABALETA

**E D E L  
TAPIZTEGIA**

*Gortina  
Alfonbra  
Koltza*

Bidakruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25  
BERGARA

*Sport*  
**SASIAIN**



Zaraia 4, Tfnoa: 79 77 63 ARETXABALETA

**PEÑACOBÁ**  
Auto-Eskola

Zarugalde, 46  
79 14 01

ARRASATE

**MARTINEZ**  
**aroztegia**  
Sukaldetan  
neurri guztietako  
altzarlak

Araba Etorbidea, 13  
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

"EDERTU" ileapaindegia



San Andres auzoan

79 04 28 Tfnoa.

**BATZOKIA**  
**jatetxea**

Eguneroko menua  
eta karta

Iturriotz 41, 79 70 41  
Arrasate



G. M.

Gaur goizean,  
igandea,  
plaza bazterreko  
banku berri hoietako batean  
eseri naiz

eta

han

egon

lasai egon

jendea begira

esku bat patrikan.

Ez!!

inoiz

ez dugu jakingo

besteen

sentitzen dutena.

Patxi Montero

**BATZOKIA**  
**jatetxea**

Eguneroko menua  
eta karta

Iturriotz 41, 79 70 41  
Arrasate



**ARAMBURU**  
**COTEMAR**  
garrario agentzia

Zaldizpe 3, Tfnoak: 79 52 34 / 79 53 99 ARRASATE

■ **Berlingo harresia:** Gutariko asko txikiak ginela, orbain itsusia bailitzan Berlin osoa goitik behera zeharkatuko zuen harresia eraiki zuten. Egun hauetan, Ekialdeko Alemanian gertatzen ari diren aldatetak direla bide, Berlingo alde biak harremanetan ipintzen dituzten igarobideak zabaldu egin dira. Hogeitaka urte halabeharrez banatuta egon diren milaka eta milaka lagunek, aukera izan dute azkenik elkar ikusteko.

Telebista desberdinen albistegiek irudi hunkigarriak erakutsi dizkigute; harresia altxatu zutenekoak, maiz heriotza aurkituz urte hauetan zehar murrua zeharkatzeko egin diren ahalegin dramatikoetakoak eta egun hauetan horma horren inguruan eman berri diren eszena alaiak azalduz. Denak ere zoragarriak.

Horrelako gertaerek geroz eta ageriago erakusten digute aurrerantzean bai zinemak zein telebistak historia dokumentatzeko izango duten garrantzia.

■ **Goiz guztiak balira jai:** Asteburuak berezi samarrak izaten dira Euskadi Irratian, hemen ere, beste zenbait tokitan bezala, kazetaritza ikasten ari diren ikasleei aukera ematen bait zaie praktikak egiteko. Larunbat goizetan, hamarretan hasita, *Goiz guztiak balira jai* irratsaioa dator. Honen arduraduna Aldo da, kazetaritza ikasten dabilen aiar gaztea. Saio horren barruan zera aipatu nahi nuke, astean zehar *Goizean behin* magazinean izandako hainbat elkarrizketa nahastuz, gidoi berri baten inguruan egiten den popurria. Normalean esanda-koak testuinguruz kanpo jartzen dira eta gidioia ondo idatzita dagoenean emaitza, ironia eta umorez txipristindua, oso erakargarria da, kasu honetan bezala.

■ **Parisko Printze Beltza:** TVEren albiste-gegi baten azken irudiak izan ziren, jeneralean albistegiak bukatzeko erakutsi ohi dituzten irudi ikusgarri horietakoak. Morroi ezezagun bat, *Parisko Printze Beltza*, larru beltzezko arropak ipini eta Galiako hiriburua inguratzen duen autopista horietako batean abiatu zen, zenbait momentutan 280 km/h. harrapatuz. Zorakeria horren irudiak eskaini zizkiguten. Zorabiarriak. Telebista bere onenean.

Joxe Aranzabal




## gusto baduzu

■ **Agency:** George Kaczenderrek zuzendutako filmea, ostiralean, gaueko 9etan. Beste batzuren artean Robert Mitchum, Lee Majors eta Valerie Perrine antzesleak ikusteko aukera izango dugu. Filmeak badu asmo garbia: aditu talde batek bere helburu politikoak lortzeko publizitatea erabiliz gero, zer gertatuko litzatekeen erakutsi nahi du.

■ **Ziklo-Krossa:** Igandean, goizeko 11,55etan, Zarautzeko Nazioarteko ziklo-kross lehiaketa zuzenean. Gogoratu txapelketa honetan Munduko koparako puntuak emango direla, eta bertara datozela nazio guztietako korrikalari onentsuenak. Gainera, txirindulari profesional batzuk ere saiatuko dira zirkuitoa betetzen, proba honetan saltsa pixka bat jartzekotan edo.

■ **Kalejira:** Asteartean gaueko 9etan (eta errepikapena ostegunean 14,55etan). Joseba Agirretxeak zuzendutako programarekin zita daukagu guztiok datorren astean, Juan Luis Azkarate arrasatearra izango dugu eta lehiakide (berarekin Eli Alberdi Zumarragarra). Ez ezazue bikote trebe honen pista galdu gero!

## bideoak



### La fuga de Segovia

Imanol Uriberen filmea, X. Elorriaga, Mario Pardo eta Ovidi Montllorrek.

Segoviako ihesa Angel Amigoren liburuan oinarrituta dago. 1976an jazotako ihesaren kronika da. Kontaketa funtzionarioek aleraino iristen den tunel zulatu berria atzematen duten unetik hasten da. Betan nahiz VHSn. 2.000 pta.

## OSTADAR IRRATIA (102 F.M)

### Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)  
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasiko)

### Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

### Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

## Zutabeak jauzi dira

Behoko koadroan zutabeak nahastuta daude. Behar bezala ordenatu behar dituzu goiko koadroan, ematen zaizkizun pistak aprobetxatuz. Zer azalduko zaizun? Arrasaten badugu zinegotzi bitxirik. Bada, horietako batek hauteskunde kanpainaren barruan botatako bat agertuko zaizu.

	O										K						
														D			
						J.		L.									
O	E	K	N	R	E	S	P		O	O	O	D		L	A	M	G
A	N	I	R	I		H	E	A	A	E	Z	T		N	D	P	U
E	D	T	T		A	O	G	A	K		E	A	A		A		L
	T	D	I	I	A	O	K	L	D	N	I	B	U	A	L	Z	
O	O	D	D	D		O		U	A	S	A	I		K	U	J	T
J.	T				A		A		N	E		L	A		L		A

(Soluzioak: 21. or.)

Mokordo

## Horoskopoa



**ARIES**  
Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Orain arte lortu duzunak merezi izan du, beraz, gertaera horregatik ez bota dena pikutara. Dena ez da larrosezko bidetik joango, oztopoak gainditu beharko dira.



**TAURUS**  
Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Joan den astean egin ez zenuena, honetan egingo duzu. Pozik egon zaitezke jaso duzun laguntzagatik. Hori lortzeko, agian, hurrengoan zuri tokatuko zaizu laguntzea.



**GEMINI**  
Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Nahiz eta oso egoera nahasgarrian egon, ederki moldatuko zara hortik ateratzeko. Ez zaitez horregatik kezka, utzi arazoak alde batera, bakarrik konponduko dira eta.



**CANCER**  
Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra

Ezer egin baino lehen, zu zeu garrantzitsuena zarela kontutan izan. Behar beste denbora zure buruari dedikatu. Bada ordua bizitzaz gozatzen has zaitez.




**LEO**  
Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Primeran sentituko zara egun hauetan, fisikoki batez ere. Gainera, ekonomi arloan proiekturen batean sartuko bazina, ondo irtingo litzaizuke. Aprobetxatu, ba, zorte oneko bolada hau.



**VIRGO**  
Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Indarrez beteta sentituko zara datorren astean. Aprobetxa ezazu egoera hau, batez ere lan arloan, oso lanpetatuta ibiliko zara eta. Osasun aldetik egoera ezin hobean zaudete.



**LIBRA**  
Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Makal sentituko zara egun hauetan baina ezin duzu dena utzi pilak kargatu arte. Oso garrantzitsua da orain arte lortutakoa eta defenditzen jarraitzea ezinbestekoa duzu.



**SCORPIO**  
Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Obsesionatuta zabilta hori lortzeko, baina ez duzu oso argi komeni zaizun. Ezer egin baino lehen ideiak argitu beharko zenituzke eta horretarako oporrak behar.



**SAGITARIUS**  
Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Huts egin dizun pertsona horrek inoiz ez zaitu kontutan eduki. Beregandik urruntzea duzu egokiena, bizitza konplikatu nahi ez baduzu. Betiko lagunekin, berriz, inoiz baino gustorago ibiliko zara.




**CAPRICORN**  
Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra

Egun hauetan sortu zaizkizun arazoek urduritu egin zaituzte. Guztiei irtenbiderik aurkitzea momentuz ezinezkoa duzunez, premia haundizkoekin hasi, beste guztia alde batera utziz.



**AQUARIUS**  
Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Besteek ez dute garbi ikusten zure asmoak zeintzuk diren, zuregan duten konfiantza arriskuan dagoelarik. Ondo pentsatu zer den komeni zaizuna.



**PISCIS**  
Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Zugan eragin handia izango duen pertsona berria ezagutuko duzu. Sortuko den harremana oso inportante eta luze izango da. Negu honetan ez zara bakarrik sentituko.



## Behingoz, pentsa zeuregan.

### Pentsa erosi egiten duzula.

Pentsa bost ateko Renault 21 berriaren barruan zaudela. Hain diseinu... hain diseinu lirain... eta bikainarekin... Eta barruan zu.

Aurreko aginte-panelarekin, hegazkin barruan zaudela irudituko zaizu. Gerrontzeko doikuntza eta burua pausatzekoa erregulagarriak dituen eserlekuan erdi-etzanda.

Edozein bertsiotan ere, serieko aire girotuaz kanpokotik isolatua. ABSeren aparteko segurtasunaz TXE, GTX ABS eta DX Turbo-an.

### Eta zergatik ez?

Ea ba, zergatik... Aukeratu zeure bertsioa lau potentzi mailen artean (74tik 120ra bitarteko zaldipotentziak)

Eta ikusten duzunean, esaiozu.

Zuk amaitu aurretik, baietz berak esan:

— Erosi bizkor!

## 5 ateko

## Renault 21 berria

**Maita ezazu zeure burua.**

Badakizu non erosi:



# MECA

MECA tailerrak  
Arrasate